TXINPARTAK

35. alea
2017
Ale berezia

BURDINOLAko berriak. Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea

Saletxe: poeta ikusezina



Arg: Aitor Gurrutxaga.

AURKIBIDEA

SALETXEREN BIOGRAFIA…… 4
MARTIN UGARTE "SALETXE". JATORRIAREN ERROTIK (I)…….. 7
TANKALAREN LELOA: IRALGI, ORETU TA OPILDUAZ…….. 10
AIZKORRI (ARTZAIN POEMA)…….. 20
MARTIN UGARTE "SALETXE", DESDE LA RAIZ DEL ORIGEN…… 32

BURDINOLA ELKARTEA
Latxartegi 10, behea. 64. p.k. 20230 Legazpi
Tel: 943034071 burdinolaelkartea@gmail.com

HITZAURREA

Azken hamarkadetan, espero zitekeenaren kontra, Martin Ugarte Azurmendi "Saletxe" (Telleriarte, 1916-1996), idazlearen obraren alderdi lexikalak arreta handiagoa piztu du alderdi literarioak baino. Ezin da esan, bada, bere obraren balio literarioa erabat ahaztua izan denik azken urteetan, baina ikuspegi berritzaile, fresko eta osoago baten egarri ginen.



Eta bai, bide horretatik etorri da Aitor Gurrutxaga irakasle legazpiarraren ekarpena. Gurrutxagak "Aizkorri artzain poema" eta "Tankalaren leloa" poesia lanak ikertu, xehatu eta azaldu ditu. "Txinpartak" ale berezi honen orrialdeak ez dira nahikoak izango, "Saletxe" maisuaren korapilo gordeak eta txoko ezkutuak, banan-bana azaltzeko. Ez kuanto! Baina bai idazlearen eta obraren ikuspegi berritzaile bat plazaratzeko. Eta hortxe bideratzen dira Aitor Gurrutxagaren bi garaipen handiak.

"Saletxe" idazlearen obra testuinguratu egin dugu, literatura aldetik, guk begi berriz ikus dezagun. Ez zen lan erraza hauxe, behin eta berriz hitz egin dugulako autorearen barrokismo formalaz. Hori gutxi izan ez, eta bigarren garaipena: Aitor Gurrutxaga erabat sartu da "Saletxe" maisuaren mundu ikonografikoan, eta aurretik inork ez bezala azaldu digu bere muina eta iruditeria berezia.

Hortaz, "Saletxeren" obrara sartzeko giltza egokia eman digu Gurrutxagak: "Saletxe" errazago bat dugu orain, irakurterrazagoa, ulerterrazagoa eta akaso hurbilagoa. Eta hala ere, lehen bezain aberatsa, sakona eta poetikoa. Bejondeizula Aitor! Gozatu irakurle!

Al contrario de lo que se podría esperar, en las últimas décadas la faceta lingüística de la obra de Martin Ugarte Azurmendi "Saletxe" (1916-1996) ha despertado un mayor interés que su faceta literaria. Tampoco se puede decir que no se tuviese en cuenta en absoluto el valor literario de su obra, pero sí que echábamos en falta un análisis más fresco, completo e innovador de la misma.

La aportación del profesor legazpiarra Aitor Gurrutxuga viene a cubrir esa carencia, gracias al análisis minucioso que ha realizado de la obras tituladas "Aizkorri artzain poema" y "Tankalaren leloa". Las páginas de este número especial del Txinpartak no serán suficientes para descifrar una a una las claves secretas y las escenas ocultas que subyacen en la obra de Saletxe, ¡imposible!, pero sí para dar a conocer una faceta novedosa del escritor y de su obra. Los dos grandes triunfos de Gurrutxaga van en ese sentido.

Por una parte, ha contextualizado la obra del escrito "Saletxe" desde el punto de vista literario para que nosotros la contemplemos con nuevos ojos. Tarea nada sencilla, dado el barroquismo formal del escritor de Telleriarte. Pero, además, ha ido más allá: Aitor Gurrutxaga se ha introducido de lleno en el mundo iconográfico de "Saletxe", y como nadie hasta ahora, ha sido capaz de mostrarnos su esencia y su especial imaginería.

De esta manera, Gurrutxaga nos muestra las claves para acceder a la obra de "Saletxe": gracias a él, nos encontramos ante un autor más fácil de leer, más facil de entender y, tal vez, más cercano. Y a la vez, tan rico, tan intenso y tan poético como antes. ¡Enhorabuena Aitor! ¡Disfrutad con su lectura!

SALETXEREN BIOGRAFIA

Arg.: Luis Mari Murua.



Arg.: Julen Auzmendi.

Arg.: Luis Mari Murua.

Martin UGARTE AZURMENDI “SALETXE” idazle legazpiarra 1916ko otsailaren 14an jaio zen . Damaso eta Gertrudisen seme gazteena, hiru anaiarreba izan zituen. Juana Arregi oñatiarrarekin ezkondu zen 1949an eta bi alaba eta lau biloba izan zituzten. Goitizena eman zion Telleriarte auzoko Saletxe jaiotetxea izan zuen bizitoki bizi izan zen 80 urtetan. 1996ko uztailaren 28an hil zen.

Umetatik irakurzale, Brinkolako auzo eskolan maixu izan zuen Don Geronimo apaiz beasaindarra aipatu ohi zuen bere idazle grinaren esnale. Astero, Joxe Mari tabernariarengana iristen zen *Argia* irakurterazten zien hark dotrinan. Hamalau urte zituela hasi zen Saletxe Brinkolako berri emanez *Argia*n. Ordurako, Zumarragan izan zen haurren lehiaketa batean bere olerki bat saritu zuten.

Hamalau urterekin eskola utzi eta artzai ibili zen aitarekin hiru urtez, uda partean Aizkorriko Arriurdinen eta Aitzkorri magaleko Urkimendi, Paola eta Oribin besteak beste, udaberri eta udazkenetan.

Hamazazpi urte zituela, gerra zibila lehertu baino hiru urte lehenago, hasi zen Patrizio Etxeberriaren fabrikan lanean eta hantxe aritu zen jubilatu bitartean. Gerra ostean, Legazpiko parrokiak hilero ateratzen zuen *Sed de conquista* aldizkarian euskaraz argitaratzen zuten orrialdea osatzea bere eginkizuna izan zen.

Baserriko eta fabrikako langintzek utzi izan zioten tarteetan landu zuen Martin Ugarte , Saletxek, bere idazle ibilbidea. Baserriko sukaldea zuen idaztoki.

.

Arg: Familiako artxiboa.

Arg: Familiako artxiboa.

Arg: Familiako artxiboa.

Arg.: Aito Gurrutxaga.

Arg: Familiako artxiboa.

Olerkaria izan zen nagusiki. 1958. urtean Hondarribiko "Basurko Saria" eskuratu zuen *Zeru Goiak Olerkiz* poemarekin eta ondoren idatzi zituen *Aizkorri (1962), Belaun giroen olerki ixilla (1964), Itxas poema, Etxera begira, Bizitzaren borroka (1975), Lana kantugai (1977),Odolak odolari (1979), Kedarra kiskuak (1981)...*

Gehienak saria jasotakoak dira Aita Santi Onaindiak Amorebieta-Etxanoko Larrean urtean behin antolatzen zuen Olerti Egunean. *Olerti* eta *Karmel* aldizkarietan argitaratu izan zituen lan asko. *Zeruko Argia, Goiz-argi* eta *Hots* aldizkarietan ere bai.

Prosazkoa da ordea argitaratu zuen lehen liburua: *ON EGIÑAREN OBARIA* (1972, Itxaropena). Aztiriko Arriantxo sasimedikua (1821-1909) da protagonista. Martinek aitaldeko amonaren aita zuen Arriantxo. Haren bizitza nobelatuz garaiko nekazal gizartearen argazkia egin zuen Saletxek 200 orrialdetan.

Berak jaso edo ta bizi izandakoa ondorengoei bideratzea izan zen Martin Ugarteren kezka nagusia eta horixe da bere literaturaren ardatza; betiere, jaso izan zuen hizkuntza erabiliz. Saletxeren lanen ekarpentzat hartu izan da bere hizkuntza aberatsa. Irudi literarioak sortuzale, metrikarekin ere jolas egiten zuen: oraintxe idazten zuen bertso neurtuan, oraintxe erabat askean.

Bizikera batzuk galtzearekin batera hizkuntza ere izaten ari zen galerez arduratuta, gurasoei, auzoko helduei edo ta artzain urtetsuei entzun izan zizkien hitz eta esamoldeak idatziz jaso zituen urtetan eta bi liburutan argitaratu.

.

Arg.: Aito Gurrutxaga.

Arg.: Julen Auzmendi.

Arg.: Luis Mari Murua.

Arg.: Aito Gurrutxaga.

JATORRIAREN ERROTIK (1986, Itxaropena) izan zen bata. Liburu honetan *Aizkorri artzain poema* eta *Tankalaren leloan. Gure errota ta errotarien azkena* poema ez ezik (ezezagunak izan daitezken hitzekin hiztegitxo bat gehituz bakoitzari), euskal esaera zaharren bilduma bat kaleratu zuen. 357 atsotitz jaso zituen 7 sailetan banatuta (*ezagupen zentzuez*, *kontra-erasoz*, *aolku bide*).

Hitzaurrea eta kritika Manuel eta Juan Mari Lekuona osaba-hiloba oiartzuarrek idatzi zioten. Askotan bidali izan zizkien Martinek bere idatziak gainbegira zitzaten.

Trasmisioa helburu izan zezaken beste liburua, *LEGAZPI BARRUTIKO ITZEN BILDUMA,* 1993an kaleratu zuen Legazpiko udalaren laguntzaz. 23 ataletan antolatuta (*giza-soiña*, *janari-edanak*, *etxea*, *denbora*) argitaratu zuen Legazpiko hizkeraz hitz zerrenda luzea, batzuetan ze esalditan erabil daitezken erantsiz, eta 93 taulatan jaso zituen Legazpiko hizkerako aditz formak, zuka eta hika.

Hauxe izan zen, besteak beste, Saletxeren on eginaren obaria.

Tere Beloki

Martin Ugarte "Saletxe": Jatorriaren Errotik (I)

Deigarria da ikasiak ez diren pertsona batzuek, adinean aurrera samar joanik ere, idazteko duten gaitasuna. Antonio Zavalaren Auspoa argitaletxea ere horren lekuko esanguratsua da, Tolosako jakintsuak ehundaka liburu argitaratu baitzituen herri literatura deitzen den genero "txikia" ezagutaraziz eta famatuz. Gure zaharren istorio eta pasadizo harrigarriak irakurriz gozatu gara, alde batetik, berauen kontakizunak oso indartsuak direlako eta, bestetik, hizkuntzari begira, duda barik, ale bikainak.

Arg.: Fondo MS.

Bertsolariak idazle

Herri literaturaren atal garrantzitsua, garrantzitsurik baldin bada, zalantza izpirik gabe, noski, bertsolaritza da. Bertsolariek betidanik jakin izan dute, gaur egun bezalaxe antzina ere, entzulearen arreta bereganatzen, hizkuntza ez ezik, hitz neurtuek eta errimek berekin duten xarma ere maisuki baliatuz. Bertsolaria artista dela esan izan da, eta lehenda- bizi hori esan zuenak ez zuen arrazoirik falta. Aus- poako liburuen artean aipatutako bi horietatik, hau da, narrazio eta bertsoliburuetatik, asko dira, inon- dik ere. Ez da zaila egileen artean bertsolari izandako narratzailerik aurkitzen eta alderantziz ere izango da, nahiz eta ale bakanagoak izango diren, seguru aski. Manuel Uztapide bertsolari sonatua, esate baterako, horren erakusgarri da: bertsotan plazarik plaza ibiltzeko zahartuxea eta gaixo antza jadanik, Antonio Zavalak animatuta, obligatuta ez esatearren, bere bizitzako pasadizoak oinarri hartuta, narrazioak idazteari ekin zion:

"Bertsolariak edo bertso-jartzailleak bein baiño geiagotan eskeiñi izan dizkigute autobiografi-moduko batzuk. Edota beren bizitzaren zati bat kontatzen digute. Bertsotan, ordea, eta labur antxean. Baiña patxaraz idatzitako autobiografi luze-oparo bat, eta prosaz gaiñera, aurrena Uztapide izan dala esatera ausartuko nintzateke"

(Antonio Zavala; **Lengo egunak gogoan**, Manuel Olaizola *Uztapide*)

Badira adibide gehiago, hala nola, Manuel Lasarte eta Imanol Lazkano. Bertsolariaren berezko hizkuntza-senari ahalik eta zuku handiena atera nahi izan zaiola dirudi eta literatur kutsurik ez da antzematen, aspaldiko bizimodu petralaren berri ezin hobeto ematen bada ere. Umorea, bertsolariaren gatz eta piperra, osagai garrantzitsuenetarikoa izan ohi da.

Inozentzio Olea

Alderantziz ere gerta ohi da, prosa ederra idazteko gauza izan eta bertsoak idazten ausartu dena, idazten eta ez bat batean bertsoa botatzen, alegia. Inozentzio Olearen adibidea garbia da: Zerainenen jaiotako legazpiarrak kronika apartak idatzi zituen gipuzkera osotua zeritzon hartan, euskara batua sortu aurreko hizkuntza eredu landua zen hartantxe. Bere lanak leitzeko lana hartzen duten irakurleak ohartuko dira testuak, Oleak bere garaian hainbeste gorroto zuen *hatxea* falta zaien arren, guztiz modernoak direla itxurari eta esanahiari begira; gaur egungo galbahetik euskara batua ezarri zeneko ika-mika barregarria begitatzen da, eta badirudi oinarri-oinarrian hizkuntzaren kalitateari lotzen zaiola finean. Hala ere, Olea famatu dutenak ez dira kazetaritza-lanak, hainbat aldizkari eta egunkaritan argitaratu edo irratsaiotan zabaldu direnak, bere bertso-liburuak baizik, **Otamotxeko arnasa** eta **Goierriko lorak**, hain zuzen ere. Biak ala biak kazetaritza-generotik ere hurbil daude eta hizkuntza aldetik ere landuak dira. Azken batean, Oleari gizon ikasiaren tankera hartzen zaio.

Hacherik gabe naiko lan badu
Gaur euskeraz ikasteak
Zer onura du len zaillak ziran
Lanak zaillago uzteak?
Premiarik gabe, ai, guretzako,

.

Inozentzio Olea

Arg.: Fondo MS.

Geuk dakarzkigun kalteak!
Ni bai arritu maixu jaun batek
Gauz oiek ez ikusteak!

(*Patxi Altunari*; **Goierriko lorak**, Inozentzio Olea)

Telleriarteko olerkaria

Herri-literaturaren egileen mataza-hariari tiraka, bestelakorik ere aurki liteke; konparazio baterako Martin Ugarte *Saletxe*. Legazpiko Telleriarte auzoko idazlea non sailka genezake? Zein da bere ekarpena? Lantegiko eguneroko lanak uzten zion heinean idazteko ofizioa hartu baino lehenagoko irakurle autodidaktatzat har dezakegu? Baserritar jantziaren topikoa errepikatuko al genuke berari buruz aritzerakoan? Zein adjektibo erabiliko genuke deskribatzea egokituko balitzaigu? Metalgintza arloko langile soil? Jaio eta hil bitarte baserritar peto izandako gizona? Aisialdia hitzaren esanahia jakin ez, baina nondik ez dakigun toki ezkuturen batetik irakurtzeko eta idazteko denbora hartu zuen harribitxia?

Galdera hauek ez dira erantzuten errazak. Inork gutxik irakurri ditu bere idazlanak eta hortik dator neurri handi batean zalantza. *Saletxe* irakurri dutenen artean gauza jakina da Lekuona osaba-ilobek bere idatziak irakurri ez ezik, aztertu egin zituztela, baita goraipatu ere, abonatu, Legazpi inguruan esango litzatekeen modura. Martin Ugarteren *Tankalaren leloa* olerki-bildumaren gainean Juan Mari Lekuonak egindako literatura-kritikan hainbat alderdi azpimarratzen ditu eta hiztegiari dagokionez nabarmentzen du lexikoaren aberastasuna, baina autoreari berari eskatzen diona da balizko irakurleari argibideak eman diezazkiola irakurketa ulergarriagoa gerta dakion. Ugartek berak *Jatorriaren errotik* argitaratu zuenean Lekuonak jarritako erronkari erantzun zion eta ulergarritasunaren alde saiakera egin ere bai; hala ere, hona hemen legazpiarraren erantzunaren pasarte laburra:

Nere iritzi xinplean olerkigintzan, poesigintzan, ez da biderik axalena artu bearrekoa; bigunegia, ogi-mamia jatea bezelatsu litzake, zentzurik askatu gabe arraskatzea. Ostera, bide zuurrari eltzerakoan, onen zabaleran eta egal bietako loreak ezik, belar antzuak ere naastu daitezke eskutara, olerkiari jazkera edertzeko. Erdiezkutu, erdi-azal; ontzia itxasoan bezelatsu bear luke izan; irakurleak berak ere,irakurriaz batera, pixkapixkanaka olermen bera ausnar dezan. Itz-gurutzetuak orraztu oi diren zailtasun apur batekin noski.

Luzamendutan ibili gabe, garbi dago *Saletxe*k bere buruari eskatzen zion zuhurtasuna, perpetzioa, eskatzen ziola irakurleari, hau da, poesia erraza irakurri nahi zuenari ohartarazten zion beste errekaren batean arrantz egin zezan. Martin Ugartek idazle zailaren fama du, beraz. Zertan datza zailtasuna? Herriko hizkera, hots, Legazpikoa, aztertzera berarengana joan zirenen hitzetan hizkera landuegia zerabilen. Ezagutu ez genuenok ezin esango dugu, baina badirudi idazteko zerabilen molde berean hitz egiten zuela eta elkarrizketa-egileek ez zutela haren esanak euren eginkizunerako egokitzat jo eta txundituta abiatuko zirela elkarrizketatuaren baserritik irten eta aldapan behera herri barrenera; sobra ere, idazleak hizkuntza kontuetan ez zeukan samurrera jotzeko joerarik. Hona hemen bere liburu baten hitzaurrean idatzitakoa:

Gaur egun-samurkeriz askotan-arrobi ontatik baliatzen ez bagera ere, eremu zabala uzta-bete daukagu arbasoek utzi ziguten tolestura arrigarriaz.

(**Legazpi barrutiko itzen bilduma;** Martin Ugarte)

Belaunaldien arteko jauziak hiztegiaren ezagutzan galera zekarrela sinestuta zegoen, eta bere literatur ibilbidearen arrastoan jartzen gaitu, hitzaurre honetantxe ezagutzera eman zuenez:

Esaterako, galde zaiezu gaurko gazteeri ote dakiten, amak maian jartzen dioen ogi-zatia; lurra landu, azia erein, jorratu, uzta jaso, alea eio, oretu, ta lan guzi auen

obaria ote dan ala ez. Gure aurrekoek liñu-belarra landuaz-landuaz, oial txuria nolatan sortu ote zezaketen, neri galdetzea bezelaxen litzakela uste det.

Pasadizo barregarri hau euskal hiztun gazte eta helduen arteko talkaren seinale da; irakasleak aginduta ikastolako gaztetxo batzuk joan zaizkio Atagoitiko Pako Zufiriari elkarrizketa egitera eta eskola-umeen inozentziak aitonaren ironia finarekin topo egin:

Etxeko aberekik baduzue?
Etxeko aberek batez, danak kanpon dailtzek eta.

Gizarte tradizionalaren deskribapena

Eleberri bakarraren egile, batere meriturik kendu gabe, olerkigintza da *Saletxe*ren literatura-sena gailentzen den generoa. Narraziorako darabilen moldeak, lexiko aberatsak eta gaiek ez dute irakurlea erakartzen, are gutxiago irakurle gaztea. ***On eginaren obaria***n XIX. mendeko gizarte tradizionalaren deskribapena egiten da, eta eleberriko pertsonaia nagusiaren laudorioa du ardatz nagusi; neurri batean bada ere, paralelismoa egin liteke Txomin Agirreren *Garoa*rekin eta Joanes artzainarekin. Modernitate aztarnarik ez da antzematen eta honek, ezinbestean, uxatu egiten du beste parametro batzuekin erosoago sentitzen den irakurlea.

Ugarteren olerkigintzari ere badario tradizionaltasunik; hala ere, lirikotasuna hobeto uztartzen zaio bere idazmoldeari, narrazioek berez naturaltasun handiagoa behar baitute, estetizismo txikiagoa. Martin Ugarte olerkariago da prosagile baino.

Han eta hemen barreiatuta hainbat olerki baditu ere, Itxaropenak 1984an argitaraturiko *Jatorriaren errotik* liburua da *Saletxe,* hein batean bederen, ezagutarazi duena. Liburuak bi olerki-sorta luze biltzen ditu bere baitan, ***Aizkorri artzain-poema*** eta *Tankalaren leloa*, baita euskal esaera zaharren bilduma bat ere.

Aizkorri lan intimistagoa da, autobiografiko samarra, aitarekin gaztetan Legazpiko Arriurdingo etxaboletan uda partean pasatako bizipenen berri ematen duena. ***Tankalaren leloa***n, berriz, autoreak distantzia mantentzen du Elordi-errotaren gainbeheraren deskribapena egiterakoan; oso bakana da lehen pertsonaren erabilera, eta errotaria da protagonista, errotaren patuari ezin aurre egingo diona, hots, errota zaharraren erorialdiaren metafora bihurtuko dena. Idazleak atal bakoitzaren hasieran formula bera darabil:

Emendik
Aterpe txatal onen
Leiatilla medarretik

Olerkariaren ikuspuntua ez da, hala ere, agerikoa; zirrikitu batetik begira ari denaren apaltasunez galeraren berri ematerakoan nahiago du herriaren ikuspuntua azaldu:

Tankalaren leloan, gure errota eta errotarien azkena

Legazpiko Hots aldizkariko 1986ko ekaineko literatur ale berezian, Jatorriaren errotik liburuaren argitalpenaren oihartzunaren ondotik, Jokin Otaegik, *lanaren edukia eta balio literarioak agirian jarri nahirik*, Ugarterekin egindako elkarrizketan zera aitortzen du:

B*ehin eta berriz irakurri beharrekoa da Saletxe, muina harrapatu nahi bazaio.*

Zein ote da Saletxeren muina harrapatzeko ahaleginaren emaitza?

Aitor Gurrutxaga

Arg.: Luis Mari Murua.

Tankalaren leloa: iralgi, oretu ta opilduaz

Egiazko lirika, izen horren duin dena alegia-ez baita aski hitzak lerro lerro banatzea-, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. Soila eta apaingarririk gabea delako gutxiagok ezagut eta goza badezakete ere, ez da sortu hitzen bidez, bere hutsean, ezta sortuko ere, poesia barrenkoi eta bakan horren antzekorik. Soinuz musika dirudi, eta musika baino askozaz hornituagoa ageri da gogoetaz.

(Egan,1956; Koldo Mitxelena)

Arg.: Julen Auzmendi.

Jatorriaren errotik liburuaren bigarren zatian, Tankalaren leloan, hain zuzen ere, Mitxelenak aipatzen duen egiazko lirika delakoa ezagun da. *Elordi-errota*ren azkena kontatzen du Saletxek, *ondore belaunentzat adigarri gerta dadin.* Sei atal ditu olerkiak, sei aldaka egilearen esanetan, *seirok enpor bat, soin bat, osatzen dutelarik*. Sei atal hauetaz gain, eranskina, eraskia, du amaieran. Juan Mari Lekuonak liburuaren argitalpenean honelaxe aurkeztu zituen hurrenez hurren: lehenengo kantuan, ura; bigarren kantuan lana; hirugarren kantuan, alea, laugarren kantuan, gose-izurritea; bosgarren kantuan, gau-lana utzi eta hirira doan jendea; seigarren kantuan, errotariaren heriotza; eranskinean, ilunpe beltzaren sabelean itxaropena.

Bi aldarte antzematen dira Ugarteren olerkian, errotaren kemena eta indarra lehen hiruretan; azken hiruretan, ordea, ekidin ezin daitekeen erorialdia; eranskinean, berriz, esperantza zirriztu txiki-txikia iguriki daiteke ametsaren mundu onirikoan eraikitako bertso-sortan, belaunaldi berriek izan dezaten, behinik - behin, errotak izan zireneko ezagutza.

1. Ura: jario agorgaitza

Edonork uler lezake errotaren funtzionamenduan urak berealdiko garrantzia izanik, bai ala bai, honek ibaiaren ondoan kokatuta egon beharko duela. Saletxe, hala ere, ez da konformatzen errotaren mekanismoaren baitan urak duen funtzioa azaltzen; iturburutik abiatzen da errotara bidean ur emariaren ibilgua deskribatuz:

Jaioera miñaz izukor
Ur-parrastak bor bor
Estuka ta bultzaka
Mailla-maillaka
Amilduaz

Zehaztasun handiz, argazkilariak egingo lukeen moduan, begirada arretatsua errekastoan iltzatuz:

Arri mokor irtenak
Etenik gabeko igurtzian
borobilduaz

Aditzik gabeko estilo trinkoan uraren garrantziak izadian ere badu bere isla, eta zuhaitzen egarria gizakion gizon-emakumeon egarriaren pareko da:

Ertz bietandik
Lur zaiñak gili-giliz
Astigarrak
Saatsondo begitsu
Altz-mokor zuldartsu
Ezker-aien belar luzeak
Betidaniko egarriz
Edo-ta ezkotasun antsiz,
Urera
Makurtuaz

Ura lurrina ere bada eta ***hostoak hezatu*** egiten ditu Saletxeren begietan. Oihanaren hostailari ere erreparatzen dio, eguzki printzak ezpatak bailiran hosto artean nekez sartzen baitira:

Kerizpe itxuaren tartekako etenak,
Eguzki-pintza-ezpaten
Sarbide megatx direnak

Urak, dena den, bere hotsa ere badu, basoaren isiltasunean nabarmentzen dena:

Txaplaka bakoitzean
Doiñu ezberdin oiartzuna
Ixillaren egape otzean

Metafora ederra darabil egileak bat egiten duten hiru errekatxoren urak osinean nahasten direla azaltzerakoan: ***aur zapietan bilduriko iru aizpatxo sabelkide***.

Osinari **upa-aska** deitzen dio, bertan opiltzen baita ura, ***sabel biurrian arrastari marraztua***. Urak badu bere kolorea, osinean gora egiterakoan urdin izatetik ***more-urdin illunka jartzeraiño***.

Hiru ahizpa sabelkideak osinean ***errota bitxiaren indar-gai*** , zain daude, ***pillo-pillo***. Bitartean, osinak oka egiten du ardoz hanpaturiko mozkorraren antzera, eta ur -azala, oskolik gabeko arrautz mintza, behetik gorako indarrak urratzen du:

sabeltzar beteak okaraz darraio
ur-punpullak gorantz mintza urratuaz

Errekatxo bulartsua, hala ere, ur geldia da kasik **luebai sakon**ean; basoko arbola tantaiak landaretxo bihurtu dira aldaparoaren horma bustian, betierekotu den freskuran:

Zintarri medarra oroldio otzaz
Almintz errotua, untz-aien txaldanak,
Atzera-aurrera ibillera utsaz,
Gorantz eziñean urara etzanak

Oso irudi plastikoa honako hau ere: **Urara etzanak** dira baita ere makalak, **elkar urratuaz elkarren lañezaz.**

Ñabardura-festa honetan, urak dakarren zaborreriari eusten dion orraziaren eginkizuna ere deskribatzen du *Saletxe*k, **begi-nini minduen esaneko**:

Apar-bits matasa luzera loditzen,
Zur- kaxko txatalak, orbeltza zakarra

Argitu orduko domestikaturiko ura, **biaramon txintara, lan beta itxaroz,** errotariaren mende izango da.

2. Lana: tar-tarras arri biek lanean

La historia importa, pero sin lenguaje no hay escritura (Juan Cruz, **El editor de libros y el atrevido escritor** El Pais; 2016-12-21). Halaxe gertatzen da *Saletxe*ren poesiarekin ere; darabiltzan gaiak ez dira akaso aparteko erakargarriak, hala nola, errotaren gainbeheraren elegia edo artzaintza munduaren miresmenezko poesia bukolikoa. Saletxeren olerkigintzaren zutabea bere hizkuntza indartsua da: naturaren gaineko iruditeria aberatsa; metaforak pilatzeko ahalmena; zehaztasun ikaragarrizko hiztegia; hizkera trinkoa; pertsonifikaziorako joera; izenari ezin hobeto ezkontzen zaion adjetibazioa.

Bigarren atal honetan olerkiaren izenburuaren zergatia azaltzen zaigu, hasieran urak bezala orain errotak berak hartzen baitu protagonismo osoa. Errotaren pareko errotaria, bere lanari lotua, **irin lausoaz erdi txuritua,** Kutxak argitaraturiko Pio Caro Barojaren *Gipuzkoa* ikus-entzunezkoan bere zuritasunean ederki irudika daitekeena. Amaierarik gabeko zikloa osatzen du errotako lanak:

Atzo bezala.
Beti bezela…
Argiak illuna esaneko,

Arg.: Luis Mari Murua.

Illunak ur-putzua,
Urak arri-otza;
Ta arriak alea

Urari jare egin orduko hasiko da ikuskizuna:

Ardatz-txori negartia,
Kirrinka txistuaz,
Arri zabala itzuli-mitzuli
Alea txeetuaz;
Inguru-uztaian
Koxka jakiñean txalto,
Ekinguna etetzeke
Tankalaren
Leloa.

Errotarria, berriz, lanean arituko da fin, iskanbila handirik gabe:

Entzunak-entzun
Aizeari utzirik,
Errotari nasaiak
Arretaz lanari eldu
Etsi-etsian,
Ez odol irakiterik zaiñetan,
Ez taupateko larririk
biotzean

Onomatopeiaren erresuma da *Saletxe*rena: Mari-

Arg.: Luis Mari Murua.

.

Arg.: Julen Auzmendi.

tronpeta kontakatiluaren **txitxi-potzoa;** errotarrien igurtziaren **triskilotsa eta tar-tarrasa;** tankalaren **txaplakoa;** irina azpilera erortzen deneko **txaplasta;** itzainaren gurdiaren **kirrinka;** oiloen janari den ale **parrasta.**

Zalea da egilea izenak pilatzen, aditzaren elipsiari aurre egiteko edo, errotaren funtzionamendua azaltzerakoan:

Uren igo-jetxia
Arrien laztura
Aleen eze-igarra
Pixuaren gora-beerako ikara

Arg.: Luis Mari Murua.

Baita bezeroak hartzerakoan errotariak pairatu beharreko esamesen nekea deskribatzerakoan ere:

Esames borobiltzailleen mugarri,
Muxu-berrien albiste katillu,
Berrikeri bitxien belaki

Errotariaren lan nekosoak badu, hala ere, bere estimazioa:

Auzogune txotillean
Ore-opillak zapietan,
Legami txatal naasteak
Arrotuaz-arrotuaz,
Eta ore usai ezkoa zabalduaz
Aizean..

Lanari itxatsia, amaiezina da errotariaren lan ordutegia; eguna zabaldu orduko errotan bertan lanean jardun, bezeroak artatu eta, **illunean,** segi lanean:

Arriek pikortu
Uramilla neurtu
Alea mirestu

Noizbait errotaria erretiratu da eta egile **begi luzeak** beste honetan jarri du arreta:

Sagu kuxiñen ibil-bide
Zirkil izkutuak
Gorde-mugan urbil
Katuzar beterrea moltso-moltso,
Ordu zoroetan
Eizean…

3. Alea: errotatxoaren arrobi iraunkorra

Hirugarren atalean nekazariaren ekarpenari egiten zaio gorazarre, alearen zain baitaude nola errotariak nola baserritarrak, **luze egiten baitzaie erein da uzta bildu tartea.** Egilea beldur da belaunaldien arteko talkak bere poeman irudikatzen den munduaren akabera ez ote duen ekarriko; soroko lanak, behinik behin, ezin hobeto uztartzen ditu zaharrak eta gazteak eginkizun berean:

Belaunaldiek elkarren leiaz ezker-eskuma,
Sail-adar bitan banakaturik gerri-makur

Azaroko gau luzeetan, **basa-buruan ontzen karrasi oiuak** direnean, **amona txigortuak** eta **aiton buru soilduak** gazteen arreta erakarri nahian dihardute otoitzean eta ipuinen kontakizunean:

Auzolan oparoan
Arta-txuriketa,
Apal-osterongo
jarduna

Laborantza-lana gogorra da horregatik! Uzta artean urrun, artoa apirilean, garia azaroko egun hotzetan, **ereitaro aspergarrian**:

Arg.: Julen Auzmendi.

Aizearen ikuitzeaz dantzan,
Urre orizko bizar dirudi

Itaurlari ozmindua
Izotz-lika urratuaz
Golde-epaia autsiaz
Aitzurlaria atzean
.
.
Gaindik aiton urtetsua.
.
.
Zumitz-ontzian azia

Eskerrak **Azillaren ondartzeak lan-borroken bukaera** dakarren; soro-lanen amaieran lugiñ(nekazari), dorre-txori eta errotari jai-giroan daude,

Negu-burua,
Gantzak loditzeko aukera

Artoa hainbat estimatzen zuten garia,noski,**uzta oparoaren irrikaz** zeuden nekazariek, **lurren emaria neurtua** baita **azi ereitetik uzta biltzeraiñoan.** Bien bitartean,

Lurraz estaltzeke
Galduriko aletzaz bazkatuko
Landako
Txoriak

Izotzak ere ez du askorik lagunduko, **udaberriak berpiztu eta errotu** bitarte:

Gaintzurdeak erre ta zapinduko
Landaretxo
Izpi
Oriak

Azal-urratu, ongarritu, jorra bat, jorra bi…Lurra beti emankor:

Eder eta panpox
Egun-egunka txutiago

Lurra beti emankor izanik, gal-soroen ikuskizuna metafora eder bilakatzen da *Saletxe*ren begietan:

Aizearen ikuitzeaz dantzan,
Urre orizko bizar dirudi

Igitaiaz garia ebakitzeko sasoia heldu da, **gari-soroa umotua** izanik. **Kolpe biziaz**, **iritai kako agintsua** darabilte igitailariek. Garia ebaki orduko, berriz, **lur galtzuak** (rastrojo) **anka-orpoak zirikatzen** dizkie. Egilearen begia zorrotza da eta igarri dio **kakoturiko galburu soillak jalgi beldur** direla, igitaidunen beldur, alegia.

Ez da lantegi erraza **Gari garbia kutxetara** eramaten, ordea: **lotu, tolestu, buru txigorrak joaz aletu**…

Aize-errotaz txun-txun-arinka galbaez-galba
Ale aotzak banandu azpil banatara

.

Uren igo-jetxia
Arrien laztura
Aleen eze-igarra
Pixuaren gora-beerako ikara

Arg.: Julen Auzmendi.

Martin Ugarteren testuen zailtasuna ez ote da bere idazmolde barrokoak baino deskribatu nahi duenaren zehaztasun maila xehe-xehe horrek irakurleari eskatzen dion arreta ikaragarriak sortutakoa?

4. Gose-izurritea: agintedunen indar-lege makurra

Laugarren atala poesia sozialaren ildoan koka liteke, protesta-poesia deiturikoan; Espainiako diktaduraren ondorioz gerra ostean herritarrek pairatzen zuten jazarpen politikoa eta ekonomikoa salatu zuten Gabriel Celaya eta Blas de Otero olerkariek. Baita Gabriel Arestik ere. Hirurak Euskal Herrikoak; lehenengo biek gaztelaniaz idazten zuten eta hirugarrenak euskaraz. Poesia soziala poesia urbanoa da; poesia sozialak euskara modernoa, batua, du tresna; poesia sozialak irakurterraza den hizkuntza aldarrikatzen du ahalik eta eraginkorrena izan dadin (*Esanen dute / hau /poesia / eztela,/ baina nik / esanen diet / poesia / mailu bat/ dela.* Gabriel Aresti; "Poesia", 1963); poesia soziala Euskal Herri berriaren isla da. Oso bestelakoa da **Saletxe**ren poesia, ez baita ez hiritarra, ez irakurterraza, ez molde batukoa, ez mundu ikuskera modernoaren itxuraz apaindurikoa; hala ere, kritika soziala baldin bada poesia mota honen helburua bete-betean asmatzen du:

Legegiñak arratean,
Sar-irtenak illunpean;
Bere gisa salakuntzak
Zer-nai erara auzia

Oso hitz esplizituak dira. Arratea harrizko atea da, legeak egiten dituztenen egoitza ofiziala; gainerakoa bere horretan ulertzen da: gauaren anparoan bahitzen zituzten herritarrak injustizia osoz epaituko zituzten. Espainiako Gerra Zibila hizpide duten filmak ikusitakoek samur ulertuko dute ahapaldia, lau bertso hauek oso zinematografikoak direlako eta gertaera bere horretan deskribatzen delako, bere gordinean.

Gerra osteko gose-urteak gogorrak izan ziren oso herritar xumeentzat eta familia-buruen nekeak handiak etxekoek jango bazuten:

Sabel utsak nundi-andik,
Saiets eman argiari,
Jan lezaken aokada
Bildu bear sendiari.
Gaberdiko orduetan,
Bere baitaz lapurretan;
Belaun giltzak dardarazka
Letorkion egurrari.

Are gogorragoak izan ziren Espainiako gobernuak errota gehientsuenak itxiarazi zituenean:

Teillatza bizkar-kakotuak,
Ta gain-mintzeko
Oroldio bizartsuak
-Barrunbe-lana ixilpeko
Dutela,-
Azaldura antzaldatu dioe
Gorpu-il irudi,
Ta agian illerri;
Ordekako makal tantaien
Itzalera…

Errotaria erruki da erkideen miseria dela medio, eta egun argiz galarazita daukana gauean egingo du halabeharrez,

Errotari biozbera

Ixilpeko gau-txoria,
Onek daro bigunduaz
Aldi beltzaren zoria.
Beso biek zabal dago,
Eta biotz zabalago;
Gau beltzaren uztarpean,
Eioaz irin txuria.

Errotariak, bere asmamen zorrotzari esker, beldurrari aurre egin eta **zigorpeko lokarria** etengo du:

Tankalaren kolpe-ots sorkorra,
Ardagai mamitzan autsiaz
Mututu.
Ardatz txoriaren txistua
Gantzaz labainduaz
Zapuztu.
Ixilpeko maratilla,
Irin-azpilla
Beteaz datorrela,
Begipetik
Ustu…

Agintarien aurkako salaketa berresten du Saletxek, beti ere, herri-xehearen pairamena ezin sufrituta:

Menpekoa,
Argala,
Aula,
Ezeren babesge xinplea,
Indarrez
Lotzea…

5. Herriko lantegiaren sorrera: erein ezean uztarik ez

Lurrak lantzeari utzirik esku-indar berria igeska doa irabazpide berrietara. *Paisaia teknikoa hutsala da; hiri industrialak ikusi besterik ez dago: gizagabeak, mekanizatuak; bertan bizi direnak segurtasun eta babes bila irrikitan dabiltzan txindurri gaixoak dira.*(Teknikaren perfekzioa; Friedrich Georg Jünger).

Industrializazioaren paradoxa, mundu berri aberatsago eta zoriontsuago bat ustez ekarri, baina mundu zaharraren akabera ere ezarri zuena. Laborantzazko lurrak behin betiko desagertuko dira:

Aldioro, lur-landuek gorri-orixka,
Osteroan musker jantziaz
Oizko landak,
Goldez iraultzeke utziaz

Bertatik bertara ezagutu zuen *Saletxe*k nekazal munduaren gainbehera, eta irabazpide berrien bila abiatu zen bera ere herriko lantegi sonatura, nahiz eta baserriari ez zion sekulan ere muzinik egin. Neurri gabe zabaltzen ari zen lantegiak **lurtzaingo** ederrenak eta zabalenak hartu zituen sorlekuan, makina bat baserri, errota eta bestelako eraikin betiko suntsituz. Ez du ezkutatzen, berea barne, belaunaldi berrien erantzukizuna, **ogi-bide arrotzera itxu-itxuan murgilduak**:

.



Arg.: Aitor Gurrutaga.

Leen-ezpaletiko oin berrien lepondora
Eztenkada otza,
Ta betirako lotsa;
Noiztandiko eremu zaarreen
Orporako!

Hotzaldian lo dagoen muxarraren antza hartzen die albora utzitako laborantza-tresnei:

Golde amuts erdoitua,
Aaztuxea larraiñean,
Aitzurra bere utsean
Jostaillu noizik-beiñean.
Ta uztarri zizeldua,
Pipi-sitsak zulatua

Nekazaritzaren gainbeherak, nola ez, errotariari ere eragingo dio eta **errotatxo pirriña etorbide beltzean abiaraziko du.** Garai berrietara, dena den, moldatu behar izaten da eta batzuek progresoaren edo aurrerabidearen onurak ez zituzten gaizki ikusi; honatx Inozentzio Olearen bertsoa(*Legazpiko pestak; Goierriko lorak*):

Olak industri biurtu dira,
la ez degu artzantzik,
Gaurko Legazpik ez dauka noski
Lenagoko aren antzik,
Berritu gabe ez da gelditu
Kale edo enparantzik;
Egun auetan ez da paltako

Arg.: Julen Auzmendi.

Alaitasun eta dantzik,
Aspaldi ontan aurrera goaz,
Ez izan orren zalantzik.

Beste batzuen begietan, ordea, lantegiaren ikuskizunak berez goibeldua dagoenaren animoa are gehiago urratzen du; Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* eleberriko protagonistari, egun batzuk Brinkolako familiaren baserrian eman ondoren trena hartu eta Donostiara bidean, Legazpiko fabrika ikusterakoan gertatzen zaion bezalaxe:

Baina alde egitea erabaki zuen. Zumarragara trenez joaten deskribatu zuen Iñaki Abaituak, berak orduantxe zekusan paisaje bera begietan: zeru grisa ebakitzerik lortzen ez zuten mendi beltz pinudiz estaliak; fabrika gris erdi eroriak, kristalik gabeko leihoetatik fundizioaren sugarrak agerian; koipe beltzez zikinduriko langileren bat tarteka, espresiorik gabe, txapela bekainetaraino, trenari so. Hainbeste aldiz aldeztera derrigorturik sentitu zen paisaje triste eta hezea. "Zeru urdinaren edertasun konbentzionalaren kontra" esan ohi zuen.

Arg.: Aitor Gurrutaga.

6. Errotariaren heriotza: eziñak urtua aulez, erori da

Seigarren atal hau negar eta tristuraz gainezka dator, errota eta errotaria **elkarri esku emanik bat-batera itzali baitzaizkigu.** Goibela da errota isilaren isla olerkariaren begietan:

Teillape txatal ospela
Ixil da utsa,
Bakar-giro antzu ozpinduan.
Ormatarte lizun-usaindua,
Armiarmen jolastoki
Dala.

Kanpoko ikuspegia ez ezik, errota barruak ere bazterrera utzita dagoela ezagun du:

Saguen agin-urrakaz,
Irin-ganbelak garbirik;
Aiek ere igas joanak,
Gorotz-apurrak utzirik.

Bertan behera utzitako etxearen hondamendia, alegia:

Untz alperra pardelduaz,
Abe-gaillur etzanera;
Oroldio motots-gunak,
Gain atsaren esanera.

Pablo Nerudaren *Una canción desesperada* olerki ezagunean bezala, nola errotari hala errotariari gagozkiola, **todo en ti fue naufragio.**

Etorkizunak kezkatzen du errotaria, ondorengo belaunaldien **ikuspegi ezkelak; geroaren kezkaz gogaitua** baitago. Auzotarrak errotaren gainbeheraren damuz ote diren galdetzen dio bere buruari **alkian jarri, abian altxa** dabilenak, bere baitako bakarrizketan:

Kolko itxian
Gogamen miñak,
Egun-sail oro
Amets utsean.

Bestela ezin eta hil da azkenik errotaria, **esker ezaren adur gorrian**. Hil kanpaiek aditzera eman dute herrian ohiko doinu tristean albiste lazgarria, **adierazmen gordiña.** Nork ez du sentitu **barne-ukuitu zirrara ozmiña?** Aizeak **lau egaletara** barreiatu du **albiste ozpiña, eizazakurren damu-erauntsi samiña**rekin batera:

"Elordiko
errotaria il omen…"

Kondairen egape beltzera kondenatua dago errota, ipuinen erresumara; ondorengoen oroitzapenean gordeko ahal da!

Igaroaren gomuta soilla
Aazteke,
Iltzeke,
Oraingoz iraun dezake,

Arg.: Aitor Gurrutaga.

Ta ondore kurpillak
Ostera

Auzoari bizia eman ziona, **mendeak zear irauna**, **igel -karraken arronka-zelai** bihurtua, **negute otzean ontzak babes artua…**

Julio Llamazaresek *El río del olvido* bidaia-liburuko pasarte batean biztanleek bazter utzitako Villarrasil herriaren deskribapenean idatzitakoak ondo laburbiltzen du Tankalaren leloaren seigarren atalaren gaia:

" El viajero recuerda aquel extraño cuento que su abuelo le contaba cuando niño, en los veranos ya lejanos y perdidos de su infancia:

Villarrasil, Villarrasil
Siete casas y un molino
El molino lo llevó el río
Villarrasil quedó perdido".

7. Eranskina: lamiñak aitzurtzen diarduen ixilpeko ezparrua

Egilearen aitortza da *Tankalaren leloa* amaitu ondoren idatzitakoa dela **eraskia.** Sei atalen batasunaren osagarri da, beraz, Saletxeren hitzetan **ariñaketan** idatzitako azken atala. Lekuonaren aholkuz atal bakoitzaren amaieran emandako argibideen itxura bereko dira olerki hauek, akaso seigarren atalak utzitako mikaztasuna apur bat gozatze aldera:

Baiña iritziak-iritzi, zerbait ikastea norbaiten eskutik datorkigunez, nik beintzat onez artu det Joan Mari Lekuonak poemari egin dion kritika; ta, arrazoi onentxegatik, neri iruditzen zaidan itz ezezagun, edo-ta, itzeri ordekotza, gezurritzez eman diodaten jokua osoago jaso dezazun, aldaka bakoitzaren oiñean, itzen esanaiak eta abar, zure irizbide izan daitezen, ementxen ditezu argibide.

Sei aldaken osotasunaren apendizea dela nabari zaio eranskinari; egileak berak berresten du presaka idatzitakoa dela. Presaka ez, baina jatorrizko sei atal horien ostean eginik izango da, itxura denez. Enigmatiko samarra ere bada, arinagoa, desberdinagoa. Gaiari dagokionez ere, belaunaldi berrien jokaeraren arintasunean jartzen du arreta:

Belaun berrien indarra,
Oizko alorraz aazturik,
Zori onean edo gaitzean,
Egaraz dabil arin-arin, lurraren papar zabalean.

Gazteek euren sorlekua bertan behera utzita, **bere alorretik urrutira**, badoaz, **pasa-txorien keraz aizearen kulunkara**. Oso metafora polita darabil Ugartek gazteen fantasiazko ameskeria deskribatzerakoan: **lamiñen ezparrua**.

Inozentziaren ispilu garbia, ezin plastikoagoa da elur malutak lurmendu aurretikoa, haurtzaroa akordatu eragiten duena, elurtearen itxaropenez zeruari begira elur-matazak ahoratzeko larri dagoen umearen irudia …bere inozentzian herria etorkizun hobearen bila utzi duenaren parekoa:

Jeisten datozen elur-maluta beraiek,
Opil-txuriak…
Ezpain irtenen epelez
Mun emanaz batera,
Abian urtuko
Perkatx
Eroriak.

Kolore zuria bihurtzen da errealitatearen antitesia, **idurimen lauso eremua, lamiñak aitzurtzen diarduena.** Egileari ere, narratzaileari bai behinik behin, **egaraz aldendu** zaio, sortetxetik urrunera alde egindakoari legez, zentzua, **leena orraztu**aren orraztuz. Elurra noiz eroriko zain dagoen umearen antzera, ilunpetan zeruari so, espazioaren belztasunean edertasun zuria dakusalarik astronomoak izar multzoen konbinazio soila ikusten duen lekuan:

Zerupe otzean,
Utsaren beltzean;
Izar keiñuen dirdirapean
Zazpi orriko soiñeko pinttarra,
Bostoillo azken-mordoak
Jantzi
Duenean…

Izar multzoek jantzitako soineko pintar hori, ordea, gezurrezkoa suerta liteke, **txuritasun tuntuna**, alegia. Engainagarria da espazio infinituan izarren dizdira, eta engainagarria da etorkizunari **dena txuri**, dena samur, irizten dioten belaunaldi berrien xalotasuna:

.

Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

Txuri…
Kare-arri mokorrak
Elorri-pipitta txikerrak

Txuri
Oianeko piñudiak
Ta landako marrubiak

Iragana, oraina eta geroari buruz gogoeta egiten du Saletxek; iraganari begiratu dio errotarien kondaira berreskuratzeko, galdutako paradisuaren nostalgiaz betebetea. Oraina ez du gustuko, galerarn neurria txantxetakoa ez da-eta. Geroa, berriz, **aize-lera ariñean** dator, armiarma sarea bezain sendo:

Uneoro arrabete



Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

Elmugarantz doan arte,
Egurasguna
Eioaz-eioaz,
Armiarma ari-txirdiña
Bere baitan opiltzen
Duela…

*Saletxe*ren ideologia ez da marxismoak zipriztindutakoa, ez du historiaren progresoan sinesten. Kapitalismoarenean ere ez. Francesc Arroyok marxisten filosofia aztertzerakoan (Adiós al progreso; Babelia, El Pais) zera dio:

El marxismo es una de las filosofías de la historia que han afirmado la idea del progreso. También el capitalismo creyó en él hasta hace algunas décadas:el progreso era el resultado inevitable de unir libertad y ciencia. La especifidad del marxismo consistía en concebir la historia como una línea de avances que algunos creyeron predeterminada y necesaria: el feudalismo sucedió al esclavismo y fue sustituido por la revolución burguesa; luego venía el socialismo, fase de transición a la sociedad comunista igualitaria.

Saletxeren filosofia gizateriaren historia bezain zaharra da, ez du progreso materialean sinesten; iraganaren idealizazioa eta orainaren dekadentzia ditu oinarri:

Langille-erri arabera
bizi-giro kirastua,
edonungo aizeen esanera
geroaren ikuspegi lausotua.
Gaurkotasun burrukak ito bide
erri-min zentzu iregia,
betideniko nortasun jabetza,
ta barne ispiritu gaixokia.

Utsune gorria dakuskidat,
ta esker gaiztoaren kezka,
gaur-gaurko ezikera gezurtia,
sortu giñan mintegiakiko
ezaupiderik eza.
Ugazamaren aginpeko,
onen gonetan kukildu gisa.
Begiak urrutira makurtzeak,
bular gaberik azitzeak,
irizpide antzu auek...
Indar gabeko arnasa...»

(Erri miñez;Martin Ugarte Saletxe; Argia, 1970)

Alaberarraren maastira larra bila arrotz-lurrera joandakoek ez dute **bat-bateko itzulera**rik egingo, baina bueltan datorren usoaren urratsak emango dituzte inoiz utzitako sorlekura itzuliz:

Uxoak berriro
iparrera mokoa,
ta iparrera belaun-berriak
zankoa

Zer aurkituko du etxera itzuliko denak? Egileak badu esperantza izpi bat:

Basa-ondoko
Sasien gisara emankor;
Arantzak bere pipitta,
Nar-aienak bere
Masusta...

Utzi zuena du amets, galdu zuen etxea, etxekoak... baina Itakako Ulises orori galdutakoa berreskuratzea ezinezko gerta dakiokeenez, Eumeo txerrizainaren aholkuari men egin diezaiola:

Iristen ari zara Itakara, Ulises
Eta irrika behatzen duzu etxe aldea.
Baina ba al dakizu zer kausituko duzun?
Neuk esango dizut, Eumeo honek.
Entzun zure etxe zaharreko bozkarioa.
Zeure aiduru direla esan al dizute?
Ikus itzazu itsasontziak hareatzan zurkaizturik,
usna jauregiko leihoei darien arno eta urdai usaina.
Pentsa zer ukanen duzun etxera itzultzean:
Aita onaren semearen ospea, atorra usain gozotuak,
eguneroko aipabideak eta omenak,
ahaide eta oinordekoen laztan eta marroak,
baratxuria garagar irina eta arno ureztatua.
Eta ilea urdinduz aitona bihurtzea.
Esku ahurreko marrak ezabatzean hiltzeko.
Zertarako itzuli Itakara, Ulises?
Saiak geratzen dira soilik etxe honetan,
gida-harria besterik ez hegazti galduentzat.
Akiturik zaude? Laket al zaizkizu hiletarien malkoak?
Egiozu kasu, hegaztiek bezala, izarren bidari
Eta bizitzaz bederen badakien Eumeo zahar honi.

(Ulises Itakara heltzean; Izuen gordelekuen barrena; Joseba Sarrionandia)

Eumeo txerrizainaren tankera hartzen diot Saletxeri, bai baitaki zer aurkituko duen erbesteratuak:

Errota ixilla
Urtez zamatua,
Jazkera beltzean
Untzaz zapaldua.
Teillatu gangorra
Larrua beztua,
Aizken belaun-kerak
Arras zapuztua.

Denboraren kurpillean hezitakoa da Martin Ugarte; denbora lineala ikuskatzen du eta **pasa-txorien** joan-etorri betierekoa sustraitu dago bere pentsamenduan. Hortixe datorkio nolabaiteko esperantza xumea, oso xumea, iraganean galdua etorkizunean berpiztuko dela-koan, kristau-tradizioaren ohiko moldean:

Bizi-ari txidorrean,
Beltzondoaren gilborrean,
Izan daiteke izan,
Errauspeko txingar
Aaztua…

BEAR BADA… Esperantza funsgabea?

Belaunaldiko nexka-mutillak,
Ta adiñeko ezkongai miñak,
Korapilloa askatu edo autsi;
Kantatuko,
Agian dantzatuko,
TANKALAREN LELOAN…

Aitor Gurrutxaga

Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

Langille-erri arabera
bizi-giro kirastua,
edonungo aizeen esanera
geroaren ikuspegi lausotua.
Gaurkotasun burrukak ito bide
erri-min zentzu iregia,
betideniko nortasun jabetza,
ta barne ispiritu gaixokia.

AIZKORRI (Artzain poema)

Arg.: Fondo MS..

1984an argitaratutako Jatorriaren errotik liburuko bi olerki-sortatan lehena dugu *Aizkorri artzain poema;* ordena honen arrazoia, arrazoirik baldin badago, zein den jakiterik ez badago ere, poema luze hau egilearentzat bereziki kuttuna dela dirudi. Tankalaren leloari ez bezalako baikortasuna dario *Aizkorri*ri, ziur aski mendiak oroitzapen gozoak dakarzkiolako Ugarteri, Aizkorpean jaiotako edozeini ekar liezazkiokeenak. Legazpiarra, zegamarra edo oñatiarra izan, Aizkorriren magalean jaio izanak goierritar edo Debagoieneko izateak baino gehiago markatzen du; Oñati aldeko amona batek zalantza izpirik gabe esaten zuen bezala: *Oñatin jaixo eta Aizkorriko Kurutzara sekula bere fan barik? Hori ez dok oñatiarra! Tankalaren leloa n*ekazaritzaren gainbehera behin-betikoaren kronika egiteko baliatu bazuen ere, urteak gora-behera aldatu den arren artean bizirik dirauen artzaintzaren apologia alaia egiteko modua eman zion *Aizkorri*k *Saletxe*ri. Hala ere, Saletxerengan ohikoa den etorkizunarekiko mesfidantza poemaren akaberan ere azaltzen da, artzain-metafora ederrez apaindua:

Iñoiz artzantzak izan lezakek
Bare-barerik bukaera…
Txillarrak gaillen larre-saillari,
Sasiak oro zabalera,
Ire lillura antzaldatuko,
Piztien leize arabera.

Artzaintzaren bukaera bare-barea, zarata handirik sortu gabe, nolaz gailentzen zaion larre-sailari txilarra. Olerkiaren tonua, hala ere, bestelakoa da. Denbora galduaren bila, inoiz itzuliko ez den haurtzaroaren oroitzapena gozoa da. Aizkorri adiskide kuttunari mintzatzen zaio, **jolas-lagun** gisa. Ez du egileak etsipenez hartzen gaztetasunaren saihets-ezinezko kemenaren itzaltzea; nostalgiaz agian bai:

Antziñ niñukanean bigun eta gazte,
Oiñezko zuurragorik, beste nor bai ote?
Egal ezberdiñ oiek, gaillur eta arrarte,
Denak lautoki itun, denak aldazgabe

Amalau kantutan osatua, Aizkorri eta Urbiako artzaintzaren deskribapena egiteko egitura narratibo ahul samarra darabil Saletxek. Joamari artzainaz baliatzen da Euskal Herriko goi-larreetako artzainen bizimoduaren berri emateko. Udaberriak, udak eta udazkenak markatzen dute, hurrenez hurren, artaldeen mendiko presentzia; hala ere, Aizkorriren neguko bakardadea ere deskribatzen da. Artzainen lanbidean esanguratsuak diren gaztagintza, gazta-salerosketa eta ile-mozketa zehaztasun handiz azaltzen zaizkigu. Bigarren maila batean, azeri harrapatzaileak eta Urbiako ezkonberrien istoriotxoa. Artaldeen igoera olerkiaren hasieraren abiapuntua da eta jaitsiera, berriz, amaierarena. Badira kontakizun laburrak ere, hala nola, Arriurdingo alarguna edo Topin aita-semeak protagonista direnekoa. Lau azpi-atal, bestalde, Arantzazu eta Aizkorriko Kurutzarekiko sinestearen adierazle dira. Olerkiaren hasiera eta amaiera artzaintzaren eta Aizkorriren laudorioz egindakoak dira, inondik ere.

Hatu arina dirudi Saletxeren olerkiak irakurle modernoaren arreta pizteko, sinplea, xumeegia. Mundu tradizionalaren ikuspegi oso-osokoa badu ere, artzaintzak eta artzainek badute egiazkotasunaren indarra. Amerikatako Estatu Batuetara joan ziren euskaldunen erakarmena dute Euskal Herriko artzainek. Saletxeren hizkuntzaren dotoreziak are erakarriago bihurtzen ditu. Ulergarri diren aurreiritziak alboratzen dituenak irakurri beharko luke soilik olerki-sorta hau? Espainiako barnealdearen populazioaren gainbehera gaitzat hartuta agintarien eta, oro har, erkideen axolagabekeria salatzeko

Julio Llamazaresek idatzitakoak (*La literatura de la España vacía*; Babelia, El País) badu bere mamia:

"*Como siempre, tuvieron que ser las nuevas generaciones las que se interesaran por unos fenómenos que mientras se producían pasaron inadvertidos, olvidados por unos y voluntariamente ocultos por otros, acostumbrados a avergonzarse de su naturaleza en un país que todavía considera paletos a los de pueblo y a cualquier manifestación provincial o rural de segunda categoría.*"

Kontestu honetan, Martin Ugartek berak badu zalantza bere ahaleginak merezi ote duen erabakitzerakoan; halaxe idatzi zuen olerkiaren hitzaurrean:

"Gaur, gaur bezela, artzantzaren aitamenak garrantzirik bai aldu?

Amartsu urte dira, idurimen onekin nenbillela. Ez dakit nolatan jaio zitzaidan burutamen au. Gaztearoan artzantzan ibilliak zekarkidan noski, ta zugaitza gaztetatiko ezikeraren alderdira errotzen dan gisara, bai, ta ezaren gandu megatxa, gogoaren pilpirak-edo, noizbaitekoan urratu zidalarik, neurekixeko galderari erantzun baikorra eman."

1. Sarrera: Aizkorri errai mardul

Egileak, Aizkorriri gaztaroko jolas-lagun gisa mintzatzen zaionez gero, hitanoa darabil, hurbiltasunak olerkiaren sentimendua irakurleari zabaltzen laguntzen duelako:

Ire paparrak etzin, bide-bidatxorrik,
Arkaitz irtekun eta tarteko txokorik.
Axal- zulo illunik, iturri garbirik…
Nere begi ta oiñon ezagun etzenik!...

Barrua husteko ariketa, **barren-eskea**, amets izatetik, **osin sakon** izatetik, **jaso-miñez** datorkio**.** Aizkorriren oparotasuna deskribatzerakoan azaleko edertasunari ez ezik, **barren-mami bitxi**ari ere erreparatzen dio. Barren-mamia eta **azal-mamia,** biak ala biak**,** aztergai izango ditu.

Bertso hauetan aise antzematen da Jatorriaren errotik liburuaren azaleko argazkiaren egileek, ez baita **bere bultza lotu leikan lokarririk,** eutsi ezinezkoa den sortze-lanaren irudizko metafora darabiltela:

Egiz, azkor zetiat bultzaka barrendik,
Kimu ezexka auek enpor igarretik

Egia esate aldera, Aizkorriren neurriz gainezko bertuteen zerrenda amaigabea Saletxek bere lana justifikatzeko emandako arrazoien ondorioa da:

Zuzen aitortzezkero, or diguk utzia,
Sortu giñan ezkeroz, izate erdia.

2. Gure edergaillu: gaillen jaikia

Naturaren apoteosia. Erdi-aroko bidaiariek San Adriango kobazuloa zeharkatzerakoan Aratzeko mendi-tontorra ikusi eta mundu osoko mendirik altuena zela kontatzen omen zuten, seguru asko balentria handitzat joko baitzuten ibilera nekoso hura eta, are ziurrago, Europa iparrekoak izanik, handiagorik ezagutzen ez zutelako. Ez dakigu Saletxek Aizkorri baino handiagorik ezagutuko zuen, baina haren gailentasuna nabarmentzen saiatu zen:

Or ago bitxi dirdirakorra, edertasunez beterik,
Ain zuzen ere gaillen jaikia, beste mendien tartetik.
Zeru-lur tarte utsune ori, osatzen denen gaiñetik…
Zeren agermen daukak horrela, buru-gandorra altxarik?

Illargi musu zabala ez-egindua dago, desitxuratua, alegia, **illunak izutuxea iges** egin orduko. Eguzkiak, berriz, **parre-irria** eskentzen dio Aizkorriri gordetzerakoan.

Arg.: Julen Auzmendi.

Arg.: Julen Auzmendi.

Xehe-xehe aipatzen dira **edergarriak,** hala baitira egilearen begietan **ote-motx lakarra** eta **ximaur-aleka beztua, ilargiari galdutako ondarrak diren Araba-otearen adar igarrak eta kare-arrien masailletako arri usaintsuak.**

Animalia txikienek ere Aizkorriren kolkoan dute bizitokia, esate baterako, **lurrari muinka** dabiltzan **bi mitxeleta pitxi -potxoki;** metafora airosoa, arina oso**.**

Geologian aditu izan gabe, poliki deskribatzen du harritzarren jatorri denbora-gabea, euren egiturari, **jainkoak ala nai-eta**, tinko eusten diotenak:

Amildu guraz baleude gisa, lurra lur den ezkeroztik.

Zentzumenek erne behar dute Aizkorrin, hala nola, **arkaitz muturrak ebakitzen duen aize burriña,** kilkerren **milla eresia** edo **beleen karraska latza** entzuteko**.** Mendizaleari ere **bakarka ixil-mintzoan** ari zaio **aizken-orduan**, heriotzaren atarian. **Ardien zinzarriak, txorien lelo eten eziña, moxalen irrintzia…** Mendiko sinfonia.

Aizkorri geografia da Euskal Herriko bihotzean:

Lau egaltatik ozkaka gisa baiduk gure sorterria,
Aurretik parrez giputz argia, atzez Araba zelaia,
Saiets eskumaz naparra zaarra, eta ezkerrez Bizkaia…



Arg.: Luis Mari Murua.

Saletxerentzat, ordea, Aizkorri ikuskizuna baino gehiago gogoeta poetikoa da:

Ire gandura iñoiz ausnartzen jarri izan naizenean.

3. Aizkorriko artzaina: Joamari

Poesia bukolikoa da Ugarteren olerki luzea, naturaren armonia perfektua islatu nahi duena, *Berjelio batek bezala Artzantzaren bitxitasunak kantatzeko* (Manuel Lekuonaren hitzaurrea; Jatorriaren errotik). Egileak berak artzain-poema gisa definitu zuen: idealizatutako paisaian, klasikoen locus amoenus delakoan, kokatu zuen Erromako eta Berpizkundeko autoreentzat iturburuetako ura bezain gardena den ogibide zaharra, orban gabeko artzaintza. Artzaintza kristautasunaren alegoria ere bihurtu da, noski:

Ogi-bide neurtua, latza ta medarra…
Alaz, jaunak beragan urbillen daukana…!

Joamari artzaina izango da Arkadia berri honen lekukotasuna emango duena. Gaztea zeneko Urbiako ibilerak izango dira abiapuntu, egileari Arriurdinen emandako aspaldiko bizipenak berritzeko ezin baliagarria- goak. Gaztetxoaren xalotasuna ezin saihestuzkoa da aurrena:

Oro erkin nintzan-da, aitan babesean.
Orpoz oi den itzalan antzean.

Saletxek, dena den, ez du artzain-poesigintza klasikoan lanez libre dagoen artzainaren bizimodua deskribatu nahi, zeina maitearen laudoriozko bertsoak kantatzen eta txirula joz artaldeari kontu egin gabe axolagabekeriaz aritzen den:

Geroztik zetorkidan zama bizkarrera,
Galtza luzeaz baten lanari eltzera,
Ariñentxotan asi, eziaz ostera,
Eskua bota bear izan dut denera.

Zingizango webgunean Haztegi Ikastolako ikasle batzuek egin zioten elkarrizketan Andres Zufiria Atagoitiko artzainak esandakoak berrituz: *artzaien bizimodue burnie baño gorragoa da, galtzairue bezelako gorra*.

Ziztu bizian aitonduko da Joamari artzaina, **zoriontsu bizi dan mendi-gizona**; bien bitartean, **guda-mutiltza**, andregaiaren ezagutza eta ezkondu arte hamabost urte luzez **ausnartu astia hartu** zuenekoa.

Negurik ez bagenu…Beti balitz uda…Genesiaren esana da, ordea, ogiaren saria kopetaren izerdia txukatuz eskuratuko dugula:

Egunaren erroan zaildua burrukan,
Bizi bearran zorra ordaiñ eziñikan

4. Udaberria; artaldearen igoera

Zozo-miko garaiko udaberri usaia gozoa baldin

Arg.: Julen Auzmendi.

bada, are gozoagoa da udaberria asentatzen deneko garaia; gaixoaren berpiztea:

Negu beltzaren sendagai bigun, oindiño gisa baator,
Ez gatxik iñor izaki litxik, zerbait ez diagunik zor!

So egin eta izadiaren ikuskizunaz gozatu: **pir-pirriz aizetan dabilen enadatxoa, zozokumeak txot-txot egiñaz, txingurri langilleak, erletxo burrundalariak, txirtxil beltz kantariak…**

Ezin ederragoa da, berriz, hara eta hona berean ibilian dabilen tximeletaren irudia, narraskeriarik bat ere gabea:

Non egona aiz gordeta,
Margo pitxidun pertxenta…
Kimu berritik lore-ninira, toki ber-bertan jiraka,
Eurean mutu, egazka narratx, diardun mitxeleta?

Barruko harra piztu eragiten du udaberriak, nola **maitekideko artu asmotan** dabiltzan gazteak, hala **mendiko larre erne-berrian kimu gurien egarri** diren ardiak, olerkiaren benetako protagonistak, ametsetan jarriz.

Arg.: Luis Mari Murua.

Kontakizunari berriro helduta, **sorgin izukai** diren lizartxotx gurutzetxoaz eta astalarrez hornitutako artzain etxola xumean, ardiak larri daude mendira ihes egiteko. Eskarmenturik gabeko artzain-mutillak ardiak jetziko ditu:

Aitaren egin,eskuei txistu, jeistera doa bat-banan,
Belaun biekin kaikua lotuz, pikotsean jarririkan.

Beti erne egoterik ez dagoenez gero, **zurru ta purru** mutila lo eta **ardi eskukai**ek hanka! Eskerrak ardiak behin berreskuratuz gero aita, **bidazti zuurra**, ardiak hartuta goruntz badihoan. Bidean gora artzain-laguna ikusi, harekin hitz egin eta agurtu ondoren, **izardiari leku utziaz** eta **egoak jolastuz kolkoa legortzen** diola, Urbiara iritsiko da. Denak bere horretan darrai, harkaitzen betikotasunak ematen duen ziurtasunarekin:

Igazko toki berean otzik, arri karetsu txuriak…

Goi-urrutian etxol buruan ardiak ikusita, larrean ziarduen artaldea ikusita, erantzunik ez daukan galdera datorkio burura Joamariri:

Unetxo artan zer ote zegon ardi bakoitzan barnean?
Aien ametsa ari ote zan nagusiakin batean?

5. Mendiko gaztagintza: hain da bigun , da guria

Atal honen poetikotasuna zalantzazkoa da, nahiz eta egileak ohiko duen zehaztasunez ***gazta-egintza***ren **sorginkeri**en berri ematen duen. Itxurakeriarik gabeko naturaltasuna, ahapaldiaren neurri eta errimara samur egokitzen dena, beti ere, hizkera aberatsez hornitua..

Gaztagintzaren prozesuaren hasieran aspertzeke larrean dabilen ardia dago, jakina:

Ardi otsanak egun-mokotik,
Asitzen dire larre-muiñetik,
Auka-mauka belarrean.
Aruntza irten, onuntza jira,
Beti moltsoka goxonen billa,
Egun osoa janean.

Apar lodiko uats epela, bearreneko gaia, lortze aldera **beazmuturraz pirrin-pirrinkan** ardiak jezten artzaina;.**pir-par aleak, ospel aldetik** esnetara eror ez daitezen saiatu beharko du.

Gaztagintza tradizionalaren teknikak segidan: **iragazkian asuna, azpian apatz solkona, atzamar-bete gatz, gatzagia…** Esneak mamitu bitarte **zapi-txuria estalki. Malatxarekin arin nahastu, gatzura bitan banatu, zumitzera jaso, eskuz estutu itzebairikan ez izateko.** Artzainak maitasunez lan egiten du:

Leenen egunak gazta-arrian,

Arg.: Burdinola Elkartea.

Antziñ niñukanean bigun eta gazte,
Oiñezko zuurragorik,
beste nor bai ote?
Egal ezberdiñ oiek,
gaillur eta arrarte,
Denak lautoki itun,
denak aldazgabe

Eunezko zapiz lotu gerrian,
Aur jaio-berri irudi.

Azken emaitza, **su-il motelez keetan itxian,** egun estimu handitan dagoen mendi-gazta ondua: **jaki oberik ez da**.

Gaztagintzaren deskribapenari astun iritzita, Saletxek **Gazta-mamian izkutatuta** pipa galdu zuen *Txori-mordoillo* artzainaren istorioa edo **esakuna** barregarria kontatzen digu. Ganora handirik sekula erakutsi gabeko mutilzaharraren larria, inoiz erretzeari uztea erabakitzen duen erretzailearen parekoa, ez da txantxetakoa:

Biaramuna etzun ederra…
Ura zan ura galdu bearra…
Piparen aztarrenik ez!

Ez dakigu santuei egindako erreguak zer ikusirik izango zuen, baina jenio biziko Arriolako alargunari, **nori eta ari**, salduko dio pipa bedeinkatua **muiñean** ezkutatuta daraman gaztaia! Ipuinak ipuin, *Txori-mordoillo* partez *Txerri-mordoillo* bataiatuko duen **atso jaikiak,** artzain gizajoaren akzioa salatzera Urbiara dihoakionak, demanda galantak ordainetan hartuz, pipa maitea itzuliko dio.

6. Ille-mozketa: kiski ta kaska guraiza

Udaberriaren akaberan bero handiak hasi aurretik ardiak moztea beharrezko suertatzen da, bereziki latxa arrazako ardiek beroarekin asko sufritzen dutelako. Saletxeren bertsoak edozein argibide gainditzen du:

Soiñeko zaarra botatzea du
Ardiak bere ametsa

Artzainen elkartasuna beharrezko suertatzen da Urbiako zelaietan ekainaren bueltan: *" Baino ordun e saroi hontan esate bateako zazpi-zortzi artzai baldin bagare ba gaur hireak moztuko dituau eta bihar bestenak."* (Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza; Maria Isabel eta Lierni Elorza). Elkar laguntzen aritzen dira:

Egun batean onek du saio, biaramonez besteak,
Nagi aizerik ez die eman lan berri ontan asteak.

Mattin gazte berdeak (narratzailearen baliabidea orain ere) hartuko du **motxailleen** saioan protagonismoa, gainerakoek iniziazio errituala ren itxura duen lantegia jarri baitiote; **sabel azpiko ille opillak** moztea, hain zuzen ere:

Kalterik badu berekin,
Gazte izatearekin.
Ardiek ere izuz igeska,
Bera gerturatzeakin.
Besteko lotsa-motsakin,
Gaindik begiratzeakin.

Berandu baino lehen hasi dira motzaileak **kiski ta kaska guraizak ao betean**, nor baino nor:

Aurrenlariai gaña artzea
Atzekoaren burruka.

Jarduna astuna izanik, umorez eta kantari arituko dira, **neurri artuz lanari**. Apustuak ere bai tarteko eta otordua amaitzeko, **zatoa ustu bitarte**. Gaur hutsaren hurrengo balioa duen artilearen gorazarrea ere ez da falta:

Ille berri…Ille berri…
Elurra bera duen txuri!
Seaska-zarren lotan nitzandik,
Kulunkaren bigungarri.
Eta geroztik geigarri,
Nere soñan berogarri…

Arg.: Luis Mari Murua.

7. Uda: pitxi guziak lehertu

Eguna hasi eta buka, udak bere hastapena eta bere amaiera; **artzantzaro mami,** uda gau bateko ametsa…

Pertsonifikazio paregabea darabil Saletxek egunsentia deskribatzeko:

Oskarbiak erraiñu utziaz intzetan,
Argi-txinta datorkik berekix izketan.
Mendi-larrua parrez, goiz-gorri litsetan,
Eguneko jolas zai, oro ametsetan…

Eguzkiaren argiak udan suntsiezina dirudi, baina ez da betiko, **ega-xapla geldian itxaspean murgilduz:**

Ortan doakik joanaz, argia galtzera,
Eguzki maitakorra, lausotan biltzera

Egunez ez ezik, gauez ere ederra da uda, **biguna, ilargi zapalaren argi motelean. Izarrek iluna gehitzen omen dute**, ilunari argia batuz:

Konta ezinka izar, illuna geitzera,
Zeru-sapai nasaian kiñuz ditukela…
Laiño moltxo urriak batera-bestera,
Masaillera bilduaz lo-lagun bailira…

Udan zehar gauzatuko dira azeri-harrapatze, ezkontza, saleroste, Arantzazurako erromesaldi eta abarrak.

8. Axeri-arrapatze: *eiza*ren indarra

Mendi osoa ondatzen ari diren piztiak harrapatzea helburu dutela igande batez meza aurretxoan, eta ondorenean ere bai, bilera egingo dute artzainek. ***Dingilin-danga***, ezkilek mezatarako deia, baina aurretik emakumezkoek ***iñoren tximak orraztutzeko jarduna*** izango dute; Saletxeren olerkietan beti bigarren plano batean ageri diren emakumeak, sarri hitzontzi, berritsu eta maxiatzaile:

-Jas!...Nor ote den bi oietatik ezkon gogo duena?
-Nor izan bazan, Pantxikek leendik izango ziñan gizona…
Baiñan txurruta mokoan bear…Edandakoan tuntuna…

Diruz aberats ez direnek ohi duten elkarrizketa izango dute artzainek azeri harrapatzailea, **Bixente zaarra**, lantegi horretarako hartu eta hari ordaintzeko. Halako batean konpondu dira; **eman ori beti zaigu latza.** Bixente laster han da:

Bide-bidexka puxkak jarriaz,
Ta ixillean ongi gordeaz,
Gabaren illun beltzean.

Harrapatzaileak azeria errenditzeko, **obebearrez artzaiek ardi bilketa illunabarrez egin bitartean, edenpozoia puska txikian** jarriko du. Hala ere, inork ez du Bixente zaharra lanean ikusiko, lanaren emaitza bai, ordea:

Urbil natzaikon berarengana,
Eta zidanez, zazpigarrena
Pozez larrutzen ari zan.

Legazpiko Telleriarte auzoko Felipe Etxeberriak Ahotsak.eus-en honela kontatu zuen bera azeri harrapaketan ibiltzen zenekoa:

Nik afizio aundie izan non azerik harrapatzen. Hori berez etorri zat, iñok etzian erakutsi, mutikotati hasita. Hasi nitzen espionatzen; gure etxeti bastante aparte dau haitz bat, harkaitze. Eta harkaitz horrek dauzke huekok, eta edurre zan garaietan ta refujio bezela sartu iten zien igualdi txarraatio. Eta atzea eguzkie etara eta igualdie, barealdie pasatzen zikonen igualdiri irten itten zuen ta ordun arrastok uzten zittuen.Txingorra, odeie, igualdi gorra arten, gortzen ai zan garaien barrun eoten zien, baiño ia igualdik bueltea ematen zon garaien, ordun irtetzen zuen. Ordun seitzea gustatzen zitan.

9. Ezkontza: Santiostean, bero-beroan, ezkontza

Artzain-poesiagintzan maitasunak kutsu klasikoa badu ere, mitologiatik eta are erotismotik gertu, *Aizkorri*n ez dago horren aztarnarik. Manuel Lekuonak liburuaren hitzaurrean adierazi zuen Saletxek *Berjilio batek bezala Artzantzaren bitxitasunak kantatzeko* idatzi zuela; hala ere, erromatarraren eredutik urrun samar. Urbiako zelaietan inork ez zuen maitaleen maitasun-jolasen berririk izan.

Nexka-mutillen asmo ixilla,
(atzekoz-aurre apikan)
Aopetikan belar-ertzera,
Urbian azken berri zan.

Ustekabeko ezkontza esames bihurtuko da; **txitxi-**

Arg.: Luis Mari Murua.

Arg.: Luis Mari Murua.

Saltzaillearen itzera…
Ezergaberik aitzakiz jo-ta,
Leenak jasoak utsera bota

potxoki ari diren andrazkoek **aixa ekingo diote leendik bilduak sakel-ondotik uxatzeari:**

Au eta ori esan da esan
Ordutaerdiko jasan,
Alaz aria ezin etenik,
Illuna zinzil ez bazan.
Apari jira, ain otza ezik,
Sua auspean ito zan…
Beste batean jarraitzekotan
Biek banakatu ziran.

Kontuak kontu **albo errixkan,** Zegaman, lotsaz hurbilduko dira **eliz–ateetara antsiak kokatuak** diren herritarren begiradapean **luze iritzian azazkalak marraskaz zain** dagoen apaizarengana. Ondoren banketea, **ezkon berrien bizkar**:

Jakirik aski bada, geixkoan erdiak,
Oillo-zuku koipetsu, azal odolkiak,
Txekor gaztetxo baten okela guztiak,
Ase-bete ondoren gaindik egaztiak…

10. Sal-eroste: txanponen maasti

Diru-kontuak darabiltza Saletxek atal honi dagokionez; hartara, hiru azpi-atal dira eta denak artzainen estuasun ekonomikoak gaitzat harturik.

10.1. Arriurdingo Txomin

Arriurdingo Txomin *Topiñ*aren ibilerak Euskal Herrian baino Arabiako azoka edo zoko batean gaudeneko itxura du. Lanean aberastuko denik ez omen da, ezta artzainik ere. Saltzaile onak bezeroak lausengatu behar izaten ditu ezer salduko badu, *Topiñ*aren kasuan ez da halakorik baina. Harro-haizea du artzainak emakumezko erostunekin **saskiak tontor, gaztaz beteta**, Bergarara jaisterakoan. Andreak, hala ere, ez dira kikiltzen diren horietakoak:

-Itxuan ezagun zaik topindar haizela,
Ereduz gordetzen duk aitonan izena…
Auen erdi dirutan eraman nuana,
Irea bezin on dek…Aundiputz alena!

Ardagaia duin legor portatu den arren, Txominek gazta guztiak salduta bueltan Urbiara doa, etxekoandreak engainatzeko talentua badaukala erakutsita:

Nerekix esango nuke
Gaztak gaurdaiño iraun balute
Oraindik zala Bergaran

10.2 Oltzako Laxaro

Altsasuko **perira** Oltzako Laxarok egindako jiran *kantaleko* Joxe harakinarekin egindako ganadu tratua kontatzen zaigu pasarte honetan: artzainak eramandako zikiro parearekin konformatu ez eta haragitarako ardi zahar batzuk erosteko asmoz Oltzara igo da harakina:

*-**Zure okel-ardiek ikusia nator.***
Garbi esan, ez dute koipearen pikor.
Zuk zenidan erdia, pixuan nonbait-or…
Okeletan urri-ta…ezurretan gogor…

Laxarok ez du amore emango, bai baitaki Oltzaraino igo bada ez dela Zegamara esku-hutsik itzuliko.

*-**Saldukeriz ez nabil. Gizonan antzean.***
Ardi gogorrak daude, gutxi duin Oltzean.
Jartzen dituzunean auek belatzean,
Lodituko zaizkitzu larruak betean!...

Ez dira negoziante txarrak eta finean, galdu edo irabaz, bat etorri dira: **Ardiak batera eta dirua bestera.**

10.3 Bizkai aldean larre kontuak

Udako kontuak ez, azarokoak baino; Urbiako artzainak negua igarotzera Bizkaira joaten zirenekoa kontatzen zaigu, Joamari Bakiora dihoanekoa, hain zuzen ere. Udako ametsaren amaiera:

Illotzik uda-ametsak.
Aurki datzaizu neguko jantzi.

Ur asarreen orruak eta ardien dunbotsak nahastuko diren honetan artzaina, **egun osoa bere duela**, ardiendako larre egokiak hartuko dituen kezkarekin doa. Larreen nagusiarekin izango duen negoziazioak bi ikuspuntu arras diferente ditu: gipuzkoarraren ustez **mintz utsak diren barruti maxkarrengatik** nagusiak eskatzen diona astakeria da; bizkaitarrak, ordea, **akats gabeko larre**tzat ditu. Martxo lehenera edo San Jose bitarte luzatu erabaki dute diruak, gaztak eta urte-bildotsa eman gorabehera; izan ere, saltzailearen eta eroslearen arteko tratuak bere arauak ditu:

Geixko aunditu, txatxartu orde,
Akats pirriñak kolkoan gorde,
Saltzaillearen itzera…
Ezergaberik aitzakiz jo-ta,
Leenak jasoak utsera bota
Au, erosleak ostera.

11. Arantzazu: arnas xamurra barne-muñean

Lau azpi-atal ditu Arantzazu eta kristau-fedearen inguruan eraikitako olerki-sortak.; Arantzazuko tradizioaren sorburuan artzaintzak izan duen protagonismoaren ispilu da inondik ere. Euskaldun fededunaren lekukotasuna ematen dute olerki-sortako protagonistek, **siñistun -oiñarri** baita Arantzazu Saletxeren ikuspegitik, zalantzarik gabeko sinesdunak baitira Urbiako artzain hauek.

11.1 Joamarik eskainitako bildotsa

Joamari **jainkoaren mirabe soil** agertzen zaigu eta urtez urte berritzen den usadioari jarraiki, bildotsa opari hartuta Arantzazura abiatuko da. Bidean behera emeki orro egiten duen bildots gajoari erantzuten dio haren falta sumatuko duen baso ilunak:

Baso illun ixillak, lagun miñaz noski
Urruaren oiartzun erantzunez dagi.

Naturaren deskribapenetan Saletxek erakusten duen maisutasuna txikikeria diruditen ñabarduretan ere oso nabarmen ageri da; Urbiatik Arantzazurako **erromesbide** sigi-sagatsuan, **arkaitz igesi,** emari urriko errekatxoari batzen zaion ihintza are urriagoari erreparatzen dio, bere olerki askotan azaltzen duen legez urari dion miresmenaren seinale:

Eman urriko ur-erne maxkar,
Bide-mokora tantonka txar-txar,
Lur-azalean jostari.
Murmuru soilla intzakin naasi,
Artzain oinotsak auei eraski,
Loa urraka goizari.

Joamari sinesdun zuhurra da, nabarmenkeriarik gabekoa, bere izaeraren ispilu, zalantzarik gabe. Fedea barnekoa du eta Saletxeren aburuz ere halakoa behar du, eta ezinezkoa zaio irakurleari hau zertan den azaltzea; sinestesia dotore honek ageriko uzten du bere zentzumenak eginkizun horretarako motelegiak direla:

Ikustun ziren begi motelok entzumen izan balute,
Ikusiaren ari-albaiñu, esatekorik banuke,

Arg.: Luis Mari Murua.

Arg.: Claudio Caballero.

.

Arg.: Julen Auzmendi.

Une beran zeru ta lurrak izana zuten txolarte,
Irudimenan bultzadak-edo, sentipen utsak nakarte,
Eta agian, izpi bat baiño, ezin azaldu nezake…!

11.2 Larreen bedeinkapena

Artalde eta larreen bedeinkapenaren ordainez tradizioa da, oraintsu arte hala izan da behinik behin, gazta bat edo bi Arantzazuko praileei ematea izan dute artzainek ordain. Emate hori garesti izan ohi da, eta horren lekuko dugu Arriurdingo *Zatubi*. Joan dira harengana bi praile gazte eta *Zatubik* aitzakia jarri die:

Nituen denak saldu berri naiz,
Bate barik geldituaz.

Arriurdingo artzainak semea etxera bidali du etxabolan zeuzkan ez bezalako gazta txatxarren batzuk ekartzeko aginduz, baina aldapan gora zetorrela gaztak amildu! Gaizki eginaren damua sortu zaio aitari, eta semea zigorrik gabe libratu da, beti ere praileen mesedetan:

Gaizki egiñan damu biziaz
Oneratu ziren biak.

11.3 Senar-emazte gerri minduak

Arbelarko Tomax eta bere emaztea, gerriko minez biak ala biak, Aizkorriko ermitatxora doazenekoa kontatzen da. **Igoan-igoz lertuta, or-emen egon jaikian,** atseden hartu dute. Andreak ikusten duena gizonari azaltzen dio:

-Ori begia dezu, betezkel etzera.
Ikusiko zenuke txingurria bera…
-Ez al dezu ikusten? Edo txantxaz zera?
Ara, ara, badoa…Txilladian beera…

Ez dira ekaitzaren beldur eta **gibel-jario bidean, zertxo aur** diren hauek mendi-tontorrera iritsi dira. Ailegatu orduko, **belaun gorrian auspeztu ziren Gurutz Santuan oiñean**. Argizariak piztu, otoitz egin eta **atzamar biek betean** txanponak utziz gero, **otordu legea** egin. Andra-gizonek gerriko minarendako erremedio onik aurkitu zuten jakiterik ez dago

11.4 Errosario illean Arantzazura erromes

Artzain familia baten Errosario-illeko (urria) erromesaldiaren kontakizuna Arantzazuko olerki-sorten azkena da. *Aizkorri artzain-poema*n hainbatetan bezala, oraingoan ere haurren jolasgura eta alaitasunaz mozorrotzen ditu egileak protagonisten ekintzak:

Oianak lotan laiñoz jantzirik, egon ez-bai goietan
Egunak berez damaion pozaz, laurak aur dira benetan

Pagoaren itzala bilatu izan du euskaldunak eguzkitik babesteko, hegoaldean artearena maitatuko dutenez gero; baita artzain-familiak ere:

Toki gorde bat aukera zuten lurra exerleku zala
Eliz-lurretik arria bete pago itxien itzala

Bazkalondoan kredoak errezatuko dituzte karatxoak kentze aldera Kurtzeko elizatxoan. *Garitsu*k alabatxoari emandako erremedioak txantxaz hartu dituzte haren gurasoek:

Demontre txepel erregin…
Berea kentzen lan badin!

Erromesaldia burutzeko Arantzazuko amabirjinari Tomaxek eta etxekoek egingo dioten bisitan haren gorazarreko bertsoak ez dira falta:

Izan ere zuk, bultza dindirriz kolko gordean
Badezu zerbait, zuk Arantzazu, lur santua!
Biguntasun uts, arnas xamurra barñe-muñean,

Zer intzake mendi-il baiño,
Ene Aizkorri jostaria…?

Arg.: Mertxe Urkiola.

Maitasunaren osin sakonak gaiñeztua.

Barrutik kanporako fedea, itxurakeriarik gabea; *lurrin* gisa zabaltzen den **zeru-intza**, maitasunaren haziak lehertu arren azaleratzen ez dena:

Sentimenaren ase eziñaz jarriak ontan,
Ezti likuraz, ao itxian mututuak…!

12. Ipui ta gertamen: ba omen zan antziñen

Egitura narratiboari eusten badiote ere, olerkion artean desberdinak direnez gero, gainerakoekin alderatuta apartekoak dira.

12.1 Arriurdingo alargun zipotza

Ardagaian irudi, norberekoi utsa zen alargunari suertatu zitzaiona ustezko gertakaria da, **ba omen zan antziñen**. **Legorra, ozpin ontzi** izanik, oinordekorik ezaren ondorio zetorkion ezaugarria, jaso zuen honek jaso bazuen ondo merezitako ordaina.

Aurtxo jaio berria utzi zioten ijito batzuek opari etxola aurrean**.** Alargunak alabatzat hartu duena hazi da berak nahi beste gutizia neurririk gabe lortuz; hara hor emakumearen galbidea:

Urtez urte jarraimen,
Izu eta nabarmen,
Nexka azitzean…
Burutamen ariñak,
Ta egintza gordiñak,
Geitzen zemazkian.

Ardiak makillaka, gaztak aitz-bera jaurtiz, etorkizunari bildurra izatera eraman zuen alargun gaixoa. Bazuen geroari bldur izateko motiborik.

Egal ibil-miña piztu zitzaion neskari, halako burutazio zoroak baitzituen **petrazal alenak**. **Ar-zulo mokoan** lo zegoen putre batez baliatu zen bere ideia burutzeko, **zaldiaren ubelak jaurtiaz** harrapatu zuelarik:

Nola zuen burutan,
Illabete luzeetan,
Egan ibil-miña,
Egatsetan lotu zan,
Itxatsirik lumetan,
Katu-zaarra diña..!

Leize-zulotik biek irten zuten **tximistaren gisa, illezirdinak su-irudi litsa utziaz.** Halakoxea izan zen sorgin bihurtutako neskatxaren patua.

12.2 Topin aita-semeak

Barre eragitekoa da *Topin* aita-semeen pasadizoa. Euskaldunaren hitza delakoa kolokan jartzen du ipuinak, basabehitxo baten gaineko tratu ustela bitarteko azaroko perian jarritako hitzordura ez baitzen erostuna agertu.

Behiaren jabea huts egindako gizonaren etxera joan da eta haren andrearekin topo egin du. Emakumeak ohartarazi dio euren txirotasuna dela medio tratua bertan behera gelditu dela. Amorruaren amorruz, zorra kitatu gabe geldituko denez gero, gizonak emakumeari kendu egin dio honek aldean daraman topina. Ezin jakin Saletxek Murphyren legearen berri izango zuen, baina horren itxura du gizon gizarajoari segidan gertatutakoak; *Kataberako epaitzara* iritsi da makila batetik topintxoa zintzilik duela, atseden hartzeko lurrean jarri da eta ontzia amilka joan ez zaio ba!

Ipur-beltz alu ori, ua betirako! Oihu eginez agur egin zion zorioneko topinari. Nahikoa motibo bada aitasemeek aurrerantzean Topin gaitzizenez hartzeko:

.

Arg.: Claudio Caballero.

Alaz etzan gelditu
Utsik orratio…
Topin izena behintzat
Ortik dagokio…

13. Babes billa: Urbia soillik utzita

Eguraldiaren aldaketak artaldeak goi larreetatik derrigorrean jaistea dakar; **elur igesi begiak ospel** datoz ardiak **Urbia soillik utzita**. Deskribapena nagusitzen da berriro ere, Saletxeren berezko barrutira itzuliz. **Agorra eta urrilla**, iraila eta urria, alegia, elkarren jarraian datoz, **alda-aroa** eta **neguaren zama** urrun ez direla.

Agor erreak orraztu ezik,
Ez digu utzi goizeko intzik.
Larre-zain errea baiña.
Ta artaldeek batekoz-beste,
Atseden barik bizi-gai eske,
Zerbait ezearen billa.

Haize zakarrak **musker zirauten tartakadiak erdioritu** lurrerarazi ditu:

Erio antzo mendi-larruak,
Or-emen bakar mendi-larruak,
Aizea bezin mugikor.

Oraintxe kixkaldu beharrean zebiltzan ardiak, kasik akordatu gabe, hotzak akabatzen:

Ikaraz dar-dar elur otzean,
Lurmena amets, jan billa

Natura indartsua zen bere kemen berpiztuan eta indartsua da **kukilgarri den egutaroa** nagusitzean:

Ifar begitik aize gordiñak,
Bultza ditula laiño zirdiñak,
Tartez eraso gorrian.

Saletxek ardien mixeriaren berri ematen du:

Ardi gosea soillik beeka,
Lau ankatxoek baten bilduta
..Tintirriz ille izpi bakoitza,
Iturri gisa jario…

Artzain xuxenari jarraiki doazen ardiei mintzo zaie egilea, **ekaitz purrusta**ren
osteko barealdian:

Ez beldur izan zuek ardiak,
Legorra badik borda txuriak

Txilar-tarteko belar ezkoa, lar-ostoak, gaztain-ezkurren kar-karra, azpigai legorra, belar ondua zurriñean…

Itsas ertzeko herria dute ardiek helmuga, **goi hau utzi ta beeraxego nai, gau-egun joanaz.**

14. Aizkorriren bakardea: isilkako negarra

Uda-lagunak, artzainak, ardiak eta txoriak joan dira eta Aizkorri bere bakardadean gelditu da. Mina eta negarra. **Elur otzaren estalkipean ixil-ixil**. **Orma zakarrak lurra jelatzen** du, baina zerua ere **negu beltza**ren isla da; ilargiaren ezintasuna iluntasunean ezin argi eginda:

Ortze pixuan azal lodia autsi eziñaz,
Illargiari izpi attalak aitu zaizkok

Naturaren indar bortitza Aizkorrin jabetu den honetan, **nola ote dirau hor?**

Bakardadeak barne-ezin ugari azaleratzen ditu, lehenaren ezagutzak eta etorkizunarekiko mesfidantzak akuilaturik; esate baterako, Saletxeren olerkigintzan ohikoa den Euskal Herria eta euskararenganako kezkak Aizkorriren neguko kezka areagotzen dute, mendia izate totemiko sakratuaz zipriztindurik:

Ta, izan ere … nork ik ezean gorde lezakek,
Lurrak diraundik gaur arteiñoko edestia…?
Eusko-lur barne, gomuta miña jasoa baitek,
Giza-aroen aldaeratzaz itxatsia…

Bigarren Errepublikako lehenengo Jaurlaritzaren sorrera-hitzaldiko Agirreren zinaren usaina darion olerki hau Euskal Herriko historia mitiko eta denboragabearen sarrera da; Ernion euskaldunek Erromako inperioari aurre egin zioteneko kondaira, eta Altabizkarreko maldetan, euskaldunek galdutako loriaren erakusgarri, Nafarroako erresumaren aitzindariek Errolan eta Karlomagnoren armada garaitu zuteneko pasartea, XIX. mendearen amaierako lore-jokoetan hasita hainbat olerkarik eta bertsolarik idatzi eta kantatu zuten bezala.

Historikoagoak diren kontuak ere aipatzen dira olerkiaren atal honetan, hala nola, foruen galera, **galde giñun lege zaarren aizken arnasa**. Guda zibilaren aipamen zehatzik ez badago ere, zeharkakorik antzematen da:

Geroztikako mutu dirauten aldi garratzak
Berriztu ditek aldiak ainbat odol-osin

Euskera zaarraren galerak ere barrena urratzen dio Aizkorriri:

Mutu zaizkidan ainbatsu seme utsontziak…
Au aski ezik, arrotz izkera par-par mokoan,
Gortu ere au ajolgabeko bidaztiak!

Halako batean, ordea, Aizkorriren mina lehertu da, negarrez lehertu. Berriro ere ura, iturburuak, errekatxoak…:

Ene Aizkorri! Ez ote zaik ba, lur-azalean
Pol-pol txorrioz, an-or ditukan iturriak…
Negar etsian eten ezinak, bultz ixillean
Botatzen diken neurriz gaindiko malko miñak..?

Agortzen ez den miña, agortzen ez den uraren emana, ibaian behera itsasoraino ailegatzen dena, itsasoaren uraren aparrarekin bat egin arte, Jorge Manriqueren poemaren itxura hartuz:

Itxas arroan aparraz gaindik arunt-onuntza,
Atseden gabe dirauten arte txirristari…

15. Azken-itza: amets liluraren amaiera

Egileak bizitzaren amaiera urrun ikusi ez eta bere hezurrak mendiaren itzalean atseden hartzeko aitortza egiten du. **Amets-lilura**ren amaieratzat jotzen ditu azken bertso hauek, Aizkorrik sortu dion liluramenaren **idurimena** lokartu zaiolako.

Amaitzeko, anaia biki gisa azaldu dituen Aizkorri eta artzaintza biziko badira derrigor uztartzearen premia azaltzen du:

Belaunak zear, illun balezaik
Gaurdaiño irripar arpegia…
(artzain xotillen ixil-bizitza
Esan nai nikak alegia)
Zer intzake mendi-il baiño,
Ene Aizkorri jostaria…?

Olerkian zehar **egiaren urratsean** gaur idatzitakoa geroan Aizkorriren janzki bihur dadin nahi du Saletxek, **larre saillari sasiak oro zabal ez dakizkion**.

Aitor Gurrutxaga

Ire paparrak etzin,
bide-bidatxorrik,
Arkaitz irtekun eta tarteko txokorik.
Axal- zulo illunik,
iturri garbirik…
Nere begi ta oiñon ezagun etzenik!...

Arg.: Claudio Caballero.

.

Martin Ugarte "Saletxe", desde la raíz del origen



Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

Aunque Saletxe empezó a publicar en la década de los 50 del siglo pasado, lo cual tiene su mérito conociendo el triste panorama cultural y la represión que sufría el euskera en aquella época, seguramente su libro de poemas **Jatorriaren errotik (desde la raíz del origen),** junto a su novela *On egiñaren obaria*, es su obra más extensa y conocida. Publicada en 1984 por Legazpiko Kultur etxea consta de dos poemas largos, *Aizkorri artzain-poema* y *Tankalaren leloa*, y una recopilación de refranes y sentencias, *Euskal esaera zaarrak*, que no ha sido objeto de estudio en este artículo.

Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

Llama mucho la atención que un hombre sin estudios universitarios, con lecturas seguramente limitadas y sin alfabetización en la lengua unificada haya sido capaz de producir textos literarios de calidad contrastada por especialistas como Manuel y Juan Mari Lekuona o Aita Onaindia. A las labores del caserío se sumaba su trabajo como empleado de Patricio Echeverria, con lo que poco tiempo podía disponer para la escritura; no disponía de becas ni ayudas externas que pudieran ayudar en su obra creativa. Tal vez los premios literarios que cosechó en vida sirvieron de acicate. De todas maneras el creador necesita expresarse, transmitir sus sentimientos, describir su entorno por pequeño e ínfimo que sea. Tiene la certeza de que alguien leerá sus poemas; Saletxe es consciente que pertenece a un mundo rural en profundo declive, en decadencia imparable obligada por una industrialización imparable y deshumanizadora. Antes de que sea demasiado tarde, antes de su desaparición inexorable, quiere que las generaciones futuras tengan conocimiento de la vida de sus antepasados, aun sabiendo que lo pasado, por bueno que fuera, nunca volverá.

La obra de Saletxe ha sido valorada más que nada por su valor lingüístico, léxico, filológico y etnográfico. No hay nada que objetar porque hasta el mismo autor publicó un libro que recopila léxico y formas verbales de su pueblo natal: *Legazpi barrutiko itzen bilduma*. La riqueza de su vocabulario atrae al lector empecinado por conocer el significado y el origen de las palabras, pero retrae a la mayoría que se pierde en esa maraña de vocablos la mayoría de las veces desconocidos. Por lo demás la obra de Saletxe tiene un valor literario evidente que no ha sido apreciado como se merece y que debería de atraer la atención de aquellos que aprecien la literatura y la poesía más allá de los localismos: el lector no legazpiarra gozará igualmente con su lectura independientemente del trabajo que tenga que tomar en ello; es sabido que no es recomendable un atracón de poesía, ya que todo exceso dificulta la digestión, también la literaria.

Tankalaren leloa o la melodía del triquitraque

El triquitraque, tankala en euskera, es un madero que distribuye la cantidad de grano que cae a las piedras del molino y que se mueve a cada giro de la muela superior produciendo un ruido continuo y monótono, y de ahí el nombre del poema. Tankalaren leloa es un canto un tanto desgarrado al molino y a



Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

los molineros que desaparecieron tras el desarrollo industrial de la posguerra. Se desarrolla en seis partes más un apéndice. El autor mira al pasado tras un ventanuco que equivale a la memoria que con el paso del tiempo se desvanece.

El agua es el protagonista de La primera parte, esencial porque es la fuente de energía del molino; pequeños cursos de agua que nacen en la montaña entre piedras y se despeñan hasta confluir con otro arroyos, hermanitas uterinas, que descansarán en el canal o depósito del molino. Las descripciones de las aguas tanto bravas como quietas son de un detalle sobresaliente que demuestran el poder de atracción que éstas tienen sobre el autor.



Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

La segunda parte es una lección del funcionamiento del molino de Elordi-errota así como de la dedicación y oficio del molinero. El espacio exterior es ahora enteramente interior, laborioso y un tanto claustrofóbico, que sirve de morada a ratones y a gatos que cazan a deshoras. El grano ha sido convertido en harina tan esponjosa y blanca como la nieve.

La tercera parte describe el trabajo de los labradores del barrio de Azaltza que producen el grano de trigo y maíz sin el cual no existirían los molinos. Sin esa simbiosis desaparecerá el oficio. La dureza del trabajo de los labradores se transmite de generación en generación, pero los mayores dan ejemplo a los jóvenes. En espera del fruto de tanto trabajo las mieses bailan con el viento como si fueran barba dorada y el molinero sueña con la cosecha venidera que le permitirá cobrar el diezmo.

La cuarta parte bien se la puede definir como poesía social. En el contexto de la posguerra, de los años del hambre, los versos de Ugarte denuncian la injusta ley de la autoridad que explota con descaro a sus súbditos. Hay incluso una clara alusión muy gráfica que hace mención directa a las detenciones que se efectuaban durante la guerra civil con nocturnidad y con el beneplácito de los mandatarios. El molinero, frente a la prohibición de moler grano, trabaja sin descanso al amparo de la noche, utilizando incluso yesca para ensordecer el ruido del triquitraque con la finalidad de mitigar el hambre de los vecinos, porque le resulta insufrible observar al lacayo, al flaco, al débil atado por la fuerza.

La quinta parte es el principio del fin de los molinos de agua. Los culpables a ojos del autor son las nuevas generaciones del barrio de Azaltza que tanto deben al molinero, ya que abandonan el campo y su modo de vida tradicional buscando nuevos trabajos pero privando así del grano imprescindible para la continuidad de los viejos molinos. Los gritos de los boyeros ya no resuenan en los oídos, ni las codornices cantan.

La sexta parte certifica el cierre definitivo del molino tras siglos de actividad. La tristeza inunda al molinero que muere sin remedio; los perros aúllan al tañido de la campana que avisa de su muerte. Pronto sólo será historia. El molino queda sumergido en el silencio más absoluto: cuatro paredes con olor a moho, hábitat ideal para las arañas. Los ratones se lo han comido todo. Las pobres gallinas hambrientas que forzadas a salir han sido devoradas por el zorro; en las aguas estancadas y llenas de basura croan las ranas; la hiedra y las plantas trepadoras colonizan las paredes y el musgo arraiga; el tejado ya no aguanta la lluvia; viejo molino refugio de los búhos.

.

Arg.: Susi Jorge Romaratezaba-

El poema que parecía ya finiquitado tiene un apéndice final que destila una tibia esperanza. Esperanza nada real, deseo de un futuro diferente que el autor fía en las generaciones venideras que él no conocerá. Son precisamente éstas las que han abandonado el solar originario, sus raíces, atraídas por vanas esperanzas foráneas, como los pájaros migratorios que lleva el viento. Se introducen sin duda en terreno resbaladizo. Las nuevas generaciones se comportan como niños inocentes que durante la nevada, atraídos por su blancura, intentan atrapar con su boca los copos que caen; copos que se derriten como los sueños, porque los jóvenes abandonando el mundo real se han introducido en terreno de ninfas y lamías. Todo es bello y blanco, puro espejismo, en la oscuridad, como las constelaciones en lo negro del vacío. Pero tal vez, sólo tal vez, cual palomas de pase, reencontrarán los jóvenes el norte.

Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

Aizkorri artzain-poema o el poema pastoril de Aizkorri

Este segundo poema que junto a *Tankalaren leloa* constituye la base de *Jatorriaren errotik* es muy diferente respecto al primero: mantiene la misma estructura elíptica típica en Saletxe, la misma riqueza de vocabulario, también es pródigo en imágenes y metáforas, pero es más prosaico. Cuenta la vida de Joamari, pastor de Urbia. El poema es un homenaje al monte Aizkorri donde en su juventud el autor pasó algunos años pastoreando a su rebaño, más exactamente en la majada de Arriurdin. Joamari practica la trashumancia de mediana distancia de Euskal Herria; sube con sus rebaños al monte en primavera y en otoño baja hasta la costa vizcaína a pasar el invierno. Este es el eje que vertebra el poema, pero hay diversos capítulos que con mucho detalle describen la vida del pastor de altura: la elaboración del queso; el esquileo; la caza de alimañas; la venta de quesos en la ciudad; las ferias de los pueblos; el casamiento; el alquiler de pastos. Un apartado importante gira en torno al fervor religioso de los pastores y hay varios cuentos, algunos cómicos y otro de tinte mitológico, que completan el poema.

El autor se dirige a Aizkorri, rendido a su belleza, como a un amigo íntimo de la infancia al que se le admira sin límites: sus roquedos que desde el inicio de los tiempos parece fueran a despeñarse; el enebro que crece entre la piedra caliza; la mariposa que besa su suelo; los senderos serpenteantes que recorren los rebaños; refugio de hombres y animales en la tempestad.

Joamari, el pastor de Aizkorri, es un hombre de 60 años, sombra de sus antepasados. Pastor desde su niñez, hombre recto y trabajador infatigable, sueña con un verano interminable. Todas las primaveras Joamari inicia el ciclo del pastoreo trashumante que comienza con la subida de los rebaños al monte: el estadillo de la naturaleza altera a las ovejas más maliciosas que quieren encaminarse ellas solas escapando del redil lleno de ciemo jugándole una mala pasada al joven aprendiz de pastor. Todo el mundo, ovejas y hombres, quieren llegar cuanto antes a la humilde chabola de Urbia.

La elaboración de los quesos es una tarea que requiere mucha atención y cualquier despiste puede acarrear problemas; que se lo digan a *Txorimordoillo* que al quedarse dormido se le cayó la

Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

pipa al requesón. Tarea compartida entre los pastores, el esquileo requiere de tesón y experiencia; según el autor la oveja sueña con desprenderse de su viejo vestido. Tiempos aquellos en los que la lana tenía algo de valor.

Es en verano cuando el pastoreo llega a su apogeo. El rocío deja su huella matinal, desde que se hace la luz hasta que oscurece el sol hace su recorrido y a la noche, cuando las esquilas callan, infinitas estrellas hacen guiños desde el cielo. No por ser verano descansa el pastor puesto que tiene que solucionar problemas que a veces requieren de gente experta: Bixente el zaldibitarra envenenará a los zorros que hacen estragos con gallinas y corderos; pastores como *Topiña* descienden a la ciudad para vender quesos con desfachatez que escandaliza a las mujeres; Laxaro de Oltza llega a un trato difícil con un carnicero de Zegama que regatea para comprar dos carneros y varias ovejas viejas; regateo que tampoco falta cuando los rebaños llegan a Bizkaia y los pastores tienen que alquilar pastos. Menos mal que una boda inesperada alegra a los habitantes del verano en Urbia.

Arg.: Susi Jorge Romaratezabala.

Una parte importante del poema nos describe la importancia de la religión en la vida de los pastores. Singular importancia tiene Arantzazu: Joamari elige el cordero que ofrecerá a la virgen y cuyos balidos desconsolados hacen eco en el bosque que despide a su amiguito. El rezo del pastor, su trascendencia, es algo que el poeta no es capaz de explicar, solamente imaginar; la bendición de los pastos y majadas por parte de los frailes y su correspondiente ofrenda de quesos no siempre es del gusto de los pastores, al igual que no lo fue para *Zatubi.* el peregrinaje del matrimonio de Arbelar a la cruz de Aizkorri tiene su gracia; peregrinaje que repiten las familias de Urbia el mes de octubre, el mes del rosario.

Dos cuentos localizados en Aizkorri van completando el poema. El primero cuenta la historia de la viuda de Arriurdin que acogió a una recién nacida abandonada por unos gitanos y que una mala educación llevó a la ruina. El segundo narra un suceso cómico que llevó a que a unos pastores los conocieran en adelante con el sobrenombre de *Topin*.

El poema termina con el descenso de los rebaños a pie de monte obligados por la tempestad de nieve que ha cogido desprevenidos a los pastores. Las pobres ovejas ateridas de frío y goteando llegan desesperadamente a la borda. Aún les espera un largo viaje hasta la costa occidental de Bizkaia: el sueño de una noche de verano toca a su fin. Aizkorri queda solitario, en silencioso llanto; llanto que se acrecienta en su interior porque Aizkorri recuerda la historia del pueblo vasco, desde las legendarias escaramuzas de Ernio contra la Roma imperial hasta la batalla de Altabizkar en Orreaga o tantas y tantas guerras civiles que han desangrado a sus habitantes; dolor por la pérdida de las leyes viejas, los fueros; dolor profundo por la sustitución del euskera por el castellano, idioma extranjero. El invierno será largo hasta que llegue la próxima primavera.

El poema termina con el deseo del autor para que indeleblemente Aizkorri y los pastores queden unidos para siempre. ¡Que el pastoreo tenga presente y futuro! ¡Que el brezal no gane terreno a los pastizales!

Aitor Gurrutxaga

.

Bazkide egin zaitez! Hazte socio/a!

IZENA.....
Nombre
HELBIDEA.....
Dirección
TELEFONOA..... **E-MAIL** .....
Teléfono
K.K. (20 zenbaki)......
C.C.

URTEKO KUOTA / Cuota anual: 40 €

BURDINOLA ELKARTEA
Latxartegi 10, behea. 64. p.k. 20230 Legazpi
Tel: 943034071 burdinolaelkartea@gmail.com

TXINPARTAK
ERREDAKZIO TALDEA: Aitor Azpiazu, Manolo Salmerón eta Jose Luis Ugarte.
ARTIKULUGILEAK eta LAGUNTZAILEAK: Tere Beloki eta Aitor Gurrutxaga.
ARGAZKIAK: Julen Auzmendi, Burdinola Elkartea, Claudio Caballero, Aitor Gurrutxaga, Susi Jorge Romaratezabala, Luis Mari Murua, Fondo MS, Saletxe familiaren artxiboa eta Mertxe Urkiola.
MAKETAZIOA: ***Burdinola***
LEGE-GORDAILUA: SS-1077/01